**AKTA 33**
**2025EKO EKAINAK 26**

**ACTA 33**
**26 DE JUNIO DE 2025**

---

**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohikoa
**SESIÓN:** Ordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2025eko ekainak 26
**FECHA:** 26 de junio de 2025

**HASIERA ORDUA:** 09:30
**HORA DE COMIENZO**: 09:30 h

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Nekane Arzallus Iturriza andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Iñaki Gabarain Gaztelumendi jauna
Don Jon Insausti Maisterrena jauna *( 8. puntutik aurrera / A partir del punto nº 8)*

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores/as concejales/as:

Doña M.ª Jesús Idoeta Madariaga andrea
Doña Olatz Yarza Garagorri andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Kerman Orbegozo Uribe jauna
Doña Ana López Loiarte andrea
Don Juan Karlos Izagirre Hortelano jauna
Don Jabier Vitoria Roma jauna
Doña Garbiñe Alkiza López de Samaniego andrea
Don Rikardo Burutaran Ferré jauna

Don Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Doña Itziar Iturri Arrazola andrea
Doña Izar Hernando Ibero andrea
Doña Sandra Barrenetxea Díez andrea
Don Carlos García Hernández jauna
Don Juan Marrero Vizcaíno jauna
Don Iñigo García Villanueva jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna
Doña Vanessa Vélez de Pablos andrea
Don Victor Lasa Briz jauna
Doña Arantza González García andrea

**EZ DIRA ETORRI:** Ondorengo zinegotzi jaun:
**NO ASISTEN:** Los señores concejales:

Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna
Don Borja Corominas Fisas jauna

**IDAZKARIA:** Nagore Sarasola Otermin andrea, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko Idazkari Nagusia.
**SECRETARIA:** Doña Nagore Sarasola Otermin, Secretaria General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Lioba Maiza Recondo, Kontu-hartzaile nagusia.
**INTERVENTORA:** Lioba Maiza Recondo, Interventora General.

---------------

| **LABURPENA** | **Zk/ N.º** | **SUMARIO** | **Pág Orr.** |
|---|---|---|---|
| 2025eko maiatzaren 23 eta 29an izandako bileren aktak onartzea, ontzat joz gero. | 1 | Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones celebradas los días 23 y 29 de mayo de 2025. | 5 |
| Izendapenei eta kargu-uzteei buruzko | 2 | Dar cuenta de acuerdos y/o resoluciones | 5 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| erabakien eta/edo ebazpenen berri ematea. | | sobre nombramientos y ceses. | |
| Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea. | 3 | Dar cuenta de Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces. | 7 |
| **ERABAKI ZATIA** | **I** | **PARTE RESOLUTIVA** | |
| **LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO** | |
| 2025/02/27ko osoko bilkuraren erabakiari, Antiguo-Ondarretako "AO.03 Seminario" Auren RF 8095001 katastroko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin betiko onarpenari buruzkoari, espedientea bidaltzeko eta errekurtsoa defendatzeko Zuzendaritza Juridikoari enkargu egiteko Alkatetzaren Ebazpena berrestea. | 4 | Ratificación de la Resolución de Alcaldía sobre remisión de expediente y encargo a la Dirección Jurídica de la defensa del recurso al acuerdo plenario de fecha 27/02/2025, relativo a la aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana con referencia catastral RF 8095001 del AU “AO.03 Seminario” de Antiguo Ondarreta. | 8 |
| “IN.01 Marrutxipi” eremuko g.00.2 lurzatiaren “ED-2024-0218” Xehetasun-Azterlanaren behin betiko onespena. | 5 | Aprobación definitiva del Estudio de Detalle “ED- 2024-0218” de la parcela g.00.2 del ámbito urbanístico “IN.01 Marrutxipi” . | 11 |
| **ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES** | |
| Fisioterapiako jarduera pribatua garatzeko bateragarritasun-aitorpena ezestea. | 6 | Desestimación de reconocimiento de compatibilidad para desarrollar actividad privada de fisioterapia. | 14 |
| Psicoterapiako jarduera pribatua garatzeko bateragarritasun-aitorpena ezestea. | 7 | Desestimación de reconocimiento de compatibilidad para desarrollar actividad privada de psicoterapia. | 20 |
| **INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA** | **II** | **INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL** | |
| **MOZIO ARRUNTAK** | **II.1** | **MOCIONES ORDINARIAS** | |
| Mozio Arrunta, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola zatietan trenbidea estaltzeari buruzkoa. | 8 | Moción Ordinaria, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la cobertura de las vías del Topo en los tramos Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola. | 31 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Mozio Arrunta, PP Taldeak aurkeztua, portuko arrapalak eta eskailerak garbitzeko itsasora isurtzen diren lixiba isurketei buruzkoa. | 9 | Moción Ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el vertido de decenas de litros de lejía que se vierten al mar para limpiar las rampas y escaleras del Puerto. | 45 |
| Mozio arrunta, PP Taldeak aurkeztua, Errondo Pasealekuan, Morlans eta Anoeta artean, topoaren trenbidea lurperatzeari buruzkoa. | 10 | Moción Ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre soterramiento de las vías del Topo en el paseo de Errondo, entre Morlans y Anoeta. | 33 |
| **KONTROL MOZIOAK** | **II.2** | **MOCIONES DE CONTROL** | 48 |

---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OHIKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**GAI ZERRENDAKO AZTERGAIAK BOZKATZERAKOAN FALTA ZIREN ZINEGOTZIAK:**

**AUSENCIAS DE LOS/AS SRES./AS. CORPORATIVOS/AS A LA VOTACIÓN DE LOS DIFERENTES PUNTOS DEL ORDEN DEL DÍA:**

**JON INSAUSTI MAISTERRENA JAUNA (EAJ/PNV) 1.PUNTUTIK 7.ERA BITARTEKO BOZKETETAN.**

**DON JON INSAUSTI MAISTERRENA (EAJ/PNV) EN LA VOTACIÓN DE LOS ASUNTOS N.º 1 A N.º 7.**

**ANA LOPEZ LOIARTE ANDREA (EAJ/PNV) 8. PUNTUAREN 1.GO ZUZENKETAN.**

**DOÑA ANA LÓPEZ LOIARTE (EAJ/PNV) EN LA VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº1 DEL ASUNTO Nº8.**

**MARKEL ORMAZABAL GAZTAÑAGA JAUNA (EH BILDU), 3. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**DON MARKEL ORMAZABAL GAZTAÑAGA (EH BILDU), EN LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3**

---------------

**1.- 2025eko maiatzaren 23 eta 29an izandako bileren aktak onartzea, ontzat joz gero.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**1.- Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones celebradas los días 23 y 29 de mayo de 2025.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**2.- Izendapenei eta kargu-uzteei buruzko erabakien eta/edo ebazpenen berri ematea.**

**2.1**

"UDALBATZARI

PP udal taldearen bozeramaileak jarraian aipatutako kontseilu sektorialeko ordezkariak aldatzeko borondatea adierazi du *(Udalbatzaren Erregistroan* 2025/515 sarrera-zenbakiaz aurkeztutako idazkiaren *bitartez)*. Horren berri ematen zaio Udalbatzari:

**2.- Dar cuenta de acuerdos y/o resoluciones sobre nombramientos y ceses.**

**2.1**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

El portavoz del grupo municipal PP ha comunicado su voluntad de modificar sus representantes en el consejo sectorial indicado a continuación *(mediante* escrito presentado en el Registro de Pleno con *número de entrada 2025/515)*, de lo que se da cuenta al Ayuntamiento Pleno:

**OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILU SEKTORIALA/ CONSEJO SECTORIAL DE LA MEMORIA HISTÓRICA**

Titularra/Titular: **Borja Corominas Fisas**
Ordezkoa/Suplente: **Jorge Mota Iglesias**

Donostian, sinaduraren egunean.

*(Elektronikoki sinatuta / Firmado electrónicamente)*
IDAZKARI NAGUSIA
Nagore Sarasola Otermin".

**2.2.**

"TOKIKO GOBERNU BATZARRARI

2025eko ekainaren 9an, PSE-EE udal-taldeak, Plenoko erregistroan aurkeztutako idazki baten bidez, jakinarazi du Juan Marrero Vizcaíno jauna San Markoseko Mankomunitatean ordezko bokal izendatu nahi duela, Ane Oyarbide Ochoa andrearen ordez.

Donostiako Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudiko 76. artikuluetan xedatutakoarekin bat, Tokiko Gobernu Batzarra arduratuko da erakundearen kide anitzeko organoetan Udalari dagozkion ordezkariak izendatzeaz.

Hori dela eta, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak hurrengoa erabakia hartzea proposatu du:

ERABAKIA:

**Lehenengoa eta bakarra**.- Juan Marrero Vizcaíno jauna ordezko bokal izendatzea San Markos Mankomunitatearen aurrean, Udalaren ordezkari gisa, Ane Oyarbide Ochoa andrearen ordez.

Ondorioz, Udalak ordezkari hauek izango ditu Mankomunitatean:

**2.2.**

"A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

Con fecha 9 de junio de 2025, el Grupo municipal PSE-EE ha comunicado, mediante escrito presentado en el Registro de Pleno, su voluntad de que D. Juan Marrero Vizcaíno sea nombrado vocal suplente en la MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS, en sustitución de Dª Ane Oyarbide Ochoa.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76 del Reglamento Orgánico del Gobierno y la Administración del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, corresponde a la Junta de Gobierno Local el nombramiento de los representantes que le corresponda designar al Ayuntamiento en los órganos colegiados de la entidad.

Por todo lo expuesto, el Concejal Delegado de Mantenimiento y Servicios Urbanos propone la adopción del siguiente acuerdo:

ACUERDO:

**Primero y único.-** Nombrar a D. Juan Marrero Vizcaíno vocal suplente en representación del Ayuntamiento ante la MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS, en sustitución de Dª Ane Oyarbide Ochoa.

En consecuencia, la representación municipal en dicha Mancomunidad queda establecida en los siguientes términos:

TITULARRAK/TITULARES:
- Kerman Orbegozo Uribe
- Carlos García Hernández

ORDEZKOAK/SUPLENTES:
- Ana López Loiarte
- **Juan Marrero Vizcaíno**

Donostia, 2025eko ekainaren 10ean

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK /
EL CONCEJAL DELEGADO DE MANTENIMIENTO Y SERVICIOS URBANOS

D. Carlos García Hernández".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**3.- Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

"Udalbatzari:

**2025eko ekainaren 16ko Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenaren berri ematen zaio:**

Erakunde Adierazpen bateratua, EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, hirian izan diren azken sexu-erasoak gaitzesten dituena.***(Aho batez onartua).***

**3.- Dar cuenta de las declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

"Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

**Declaración Institucional aprobada en Junta de Portavoces de 16 de junio de 2025:**

Declaración Institucional conjunta, presentada por los Grupos EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia, para condenar las últimas agresiones sexuales ocurridas en la ciudad. ***(Aprobada, por unanimidad).***

Donostian, sinaduraren egunean

IDAZKARI NAGUSIA
LA SECRETARIA GENERAL

Nagore SARASOLA OTERMIN".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**I**

**ERABAKI ZATIA**

**I**

**PARTE RESOLUTIVA**

**LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO**

**4. 2025/02/27ko osoko bilkuraren erabakiari, Antiguo-Ondarretako "AO.03 Seminario" AUren RF 8095001 katastroko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin betiko onarpenari buruzkoari, espedientea bidaltzeko eta errekurtsoa defendatzeko Zuzendaritza Juridikoari enkargua egiteko Alkatetzaren Ebazpena berrestea.**

"ESPEDIENTEA AUZITEGIRA BIDALTZEA ETA LEGE ZUZENDARITZARI AGINTZEA BABESTU DEZALA DONOSTIAKO UDALAK HARTU ZUEN ERABAKI BAT: DONOSTIAKO UDALEKO OSOKO BILKURAK 2025/02/27KO ERABAKIA, DONOSTIAKO ANTIGUA ONDARRETAKO "AO.03 APAIZTEGIA" HE.KO RF 8095001 KATASTROKO ERREFERENTZIA DUEN PARTZELARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkatetzak, 2025eko maiatzaren 7an, honako akordio hau idatzi zuen:

**4. Ratificación de la Resolución de Alcaldía sobre remisión de expediente y encargo a la Dirección Jurídica de la defensa del recurso al acuerdo plenario de fecha 27/02/2025, relativo a la aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana con referencia catastral RF 8095001 del AU "AO.03 Seminario" de Antiguo- Ondarreta.**

"REMISIÓN DE EXPEDIENTE Y ENCARGO A LA DIRECCIÓN JURÍDICA DE LA DEFENSA DEL RECURSO AL ACUERDO DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN DE 27/02/2025 DE APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA CON REFERENCIA CATASTRAL RF 8095001 DEL AU "AO.03 SEMINARIO" DE ANTIGUO-ONDARRETA, SAN SEBASTIÁN

La Alcaldía, con fecha 7 de mayo de 2025, adoptó la siguiente:

E B A Z P E N A

Euskal Autonomi Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio Auzietarako Salaren 2. Atalak, auzi honen gaineko administrazio espedientea bidaltzeko eskatu dio Donostiako Udalari: 282/2025 administrazioarekiko auzi errekurtsoa arrunta, hain zuzen ere, Donostiako Udaleko osoko bilkurak 2025/02/27ko erabakiaren aurka, Donostiako Antigua Ondarretako "AO.03 Apaiztegia" HE.ko RF 8095001 katastroko erreferentzia duen partzelari dagokion Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren behin betiko onarpena, Mikel Aingeru Ardanaz Jiménezek tarteratuta.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen legeko 48. artikuluan xedatutakoarekin bat, honakoa

E B A T Z I   D U

1. Euskal Autonomi Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio Auzietarako Salaren 2. Atalari bidaltzea administrazio espedientea eta aurkibidea.

2. Espedientean interesdun gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea ebazpen hau, demandatu gisa aurkezteko aukera izan dezaten.

3. Halaber, udal honetako Lege Zuzendaritzari agintzea kontra egindako ustezko administrazio-egintza babes dezala, eta ahalmena ematea, orobat, prozedurako gorabehera, izapide eta errekurtso guztietan jarduteko eta, hala behar baldin bada, baita adostasunezko

R E S O L U C I O N

La Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dirigido una comunicación a este Ayuntamiento, requiriendo la remisión del expediente con motivo del recurso contencioso administrativo ordinario 282/2025, interpuesto por Mikel Aingeru Ardanaz Jiménez, contra el acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián de 27/02/2025, de aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana con referencia catastral RF 8095001 del AU "AO.03 Seminario" de Antiguo-Ondarreta, San Sebastián.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 de la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa,

R E S U E L V E

1. Remitir a la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el expediente administrativo e índice correspondiente.

2. Notificar la presente resolución a cuantos aparezcan como interesados en el expediente para que puedan personarse como demandados.

3. Encomendar a la Dirección Jurídica de este Ayuntamiento la defensa del acto administrativo impugnado y facultarle para que siga el procedimiento en todos sus incidentes, trámites y recursos, y en su caso para formular propuesta transaccional en los supuestos contemplados en el artículo 77 de la Ley

proposamena aurkezteko ere, 29/1998 Legeko 77. artikuluak jarritako eran.

4. Sententzia betetzeko organu erantzulea Udalbatza dela adieraztea.

5. Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran aurkeztea ebazpena, hark berretsi dezan.

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta, Donostiako Udalbatzak

ERABAKI DU

BERRESTEA Alkateak 2025eko maiatzaren 7an hartutako ebazpena, erabaki honetako azalpen zatian jasotako edukia duena.

Udalbatzak onar dezan proposatua.

Donostia, aipatutako datan.

29/1998.

4. Indicar que el órgano responsable del cumplimiento de la sentencia es el Ayuntamiento Pleno.

5. Elevar la presente resolución a la próxima sesión plenaria que se celebre, para su ratificación.

Visto cuanto antecede, y de conformidad con los dispuesto en el artículo 123 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases del Régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento

ACUERDA

RATIFICAR la Resolución de Alcaldía de 7 de mayo de 2025, cuyo contenido se ha incorporado en la parte expositiva del presente acuerdo.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal.

San Sebastián, en la fecha indicada.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN

Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGAGARRIKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Izpta. / Fdo.: Juan Antonio Chávarri Sarasua

HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE PLANIFICACIÓN URBANÍSTICA Y VIVIENDA

Izpta. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BERRETSIA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RATIFICADA.**
**UNANIMIDAD.**

--------------------

**5."IN.01 Marrutxipi" eremuko g.00.2 lurzatiaren "ED-2024-0218" Xehetasun-Azterlanaren behin betiko onespena.**

"DONOSTIAKO "IN.01 MARRUTXIPI" EREMUKO g.00.2 LURZATIAREN "ED- 2024-0218" XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

2024ko abenduaren 21ean, erreferentziako xehetasun-azterlana aurkeztu zen, izapidetzeko eta onartzeko.

Xehetasun-azterlan honen helburua da egungo aire zabaleko aparkalekuaren gainean eraikiko den ibilgailuentzako estalkiaren lerrokadurak eta altuerak adieraztea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko urtarrilaren 28an ospatutako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. "Hasierako onespena ematea "ED-2024-0218" xehetasun-azterlanari, Donostiako "IN.01 MARRUTXIPI" eremuko g.00.2 partzelarena.

   Horrez gain, behin betiko onartu aurretik, dokumentu berri bat aurkeztu beharko da, eta dokumentu horrek txostenek adierazitako baldintzak eta jendaurrean

**5. Aprobación definitiva del Estudio de Detalle "ED- 2024-0218" de la parcela g.00.2 del ámbito urbanístico "IN.01 Marrutxipi" .**

"APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE "ED-2024-0218" PARA LA PARCELA g.00.2 DEL ÁMBITO URBANÍSTICO "IN.01 MARRUTXIPI" DE SAN SEBASTIÁN.

El día 21 de diciembre de 2024 se presentó para su tramitación y aprobación el Estudio de Detalle de referencia.

El objeto del presente Estudio de Detalle es señalar las alineaciones y alturas de la futura cubierta para los vehículos sobre el parking al aire libre actual.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 28 de enero de 2025, adoptó el siguiente acuerdo:

1. "Aprobar inicialmente el Estudio de Detalle "ED-2024-0218" en el ámbito "IN.01 MARRUTXIPI", para la parcela g.00.2.

   Asimismo, con carácter previo a su aprobación definitiva se deberá presentar un nuevo documento que contenga las condiciones señaladas en los informes o

jartzeko fasean alegazioak onartzearen ondorioz sor litezkeenak bildu beharko ditu.

2. Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea, alegazioak egiteko bidea izan dadin".

Jendaurrean egondako epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hasierako onespen erabakian adierazi bezala, dokumentua behin betiko onartua izateko txosten teknikoetan jasotako oharrak bilduko zituen testu berri bat aurkeztu behar zen.

Hartara, dokumentu berria aurkeztu zen 2025eko martxoaren 13an, eta nahitaezko txostenak eskatu ziren berriz ere; aldekoak izan ziren. Txosten hauek egin ziren:

- Juridikoa: 2025/03/26.
- Arkitektura: 2025/05/23.

Azaldutakoa ikusita, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritakoaren arabera, behin betiko onartu behar da.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartuta, Donostiako Udalbatzak

E R A B A K I D U

1.- Behin betiko onespena ematea Donostiako"IN.01 MARRUTXIPI" eremuko g.00.2 lurzatiari dagokion "ED-2024-0218"

las que pudieran derivarse de la estimación de posibles alegaciones en fase de información pública.

2. Someter el expediente a información pública por plazo de veinte días al objeto de que se puedan formular alegaciones".

Durante el plazo de exposición pública no se presentaron alegaciones.

De conformidad con lo expresado en el acuerdo de aprobación inicial, había necesidad de aportar un nuevo texto para su aprobación definitiva que recogiese las observaciones realizadas en los informes técnicos.

A tal fin se presentó un nuevo documento el 13 de marzo de 2025, solicitándose nuevamente los preceptivos informes, que fueron favorables. Se emitieron los siguientes informes:

- Jurídico: 26/03/2025.
- Arquitectura: 23/05/2025.

A la vista de lo expuesto, procede, de conformidad con lo establecido en el artículo 98 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, su aprobación definitiva.

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

A C U E R D A

1. Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle "ED-2024-0218" en el ámbito "IN.01 MARRUTXIPI", para la parcela

xehetasun-azterlanari.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, onartutako dokumentuaren arau-zehaztapenak barne.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, aipatutako datan

g.00.2.

2. Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, incluyendo las determinaciones normativas del documento aprobado.

Lo proponen para su adopción por el Pleno en San Sebastián en la fecha indicada

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN

Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Izpta. / Fdo.: Juan Antonio Chávarri Sarasua

HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE PLANIFICACIÓN URBANÍSTICA Y VIVIENDA

Izpta. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

--------------------

**ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA.**

**COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES**

**Gai Zerrendako 6. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 6 del**

**Orden del Día del Pleno.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**6. Fisioterapiako jarduera pribatua garatzeko bateragarritasun-aitorpena ezestea.**

“UDALBATZARRARI

2025eko urtarrilaren 16an erregistroan aurkeztutako idazkiaren bidez, Shadi Masri Orradrek, Donostiako Udaleko karrerako funtzionarioak, osasunarekin lotutako bigarren jarduera pribatu bat egiteko baimena eskatu zuen.

Ondoren, 2025eko apirilaren 17an, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen erregistro bidez, bigarren jarduera egiteko baimena administrazioaren isiltasunez ezetsi izanaren aurka.

Errekurtso horretan arrazoitzen du ez duela berariazko ebazpenik jaso 2025eko urtarrilaren 16an aurkeztutako eskabideari, horrek esan nahi du administrazio-isiltasunez ukatu zaiola, eta isiltasun bidezko ukapen hori ez dagoela behar bezala arrazoituta; izan ere, bere ustetan jarduera elkartua guztiz bateragarria da Udaltzaingoko agente gisa betetzen duen lanpostuarekin, ez baitu lan-ordutegia oztopatzen, ez bitarteko publikorik erabiltzen, ez interes-gatazkarik sortzen, ez eta karguaren inpartzialtasuna kaltetzen ere.

Adierazten du, gainera, jatorrizko eskabidean adierazi zela fisioterapeuta gisa lanaldi

**6. Desestimación de reconocimiento de compatibilidad para desarrollar actividad privada de fisioterapia.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Mediante escrito presentado por registro el 16 de enero de 2025, Shadi Masri Orradre, funcionario de carrera del Ayuntamiento de San Sebastián, solicita que se le autorice a desempeñar una segunda actividad privada, relacionada con la sanidad.

Posteriormente, con fecha 17 de abril de 2025, presentó mediante registro recurso de reposición contra la desestimación por silencio administrativo de la autorización para el desempeño de segunda actividad.

En el citado recurso alega que no ha recibido resolución expresa a la solicitud presentada el 16 de enero de 2025, lo que implica su denegación por silencio administrativo, y que dicha denegación por silencio no está suficientemente motivada, ya que la actividad solicitada es plenamente compatible con el puesto que desempeña como agente de la Guardia Municipal, al no interferir con el horario laboral, no utilizar medios públicos, no generar conflicto de intereses ni menoscabar la imparcialidad del cargo.

Señala además que en la solicitud original, se indicó la intención de ejercer una actividad

partzialeko osasun-jarduera bat egiteko asmoa zuela, besteren kontura edo norberaren kontura izango zen zehaztu gabe. Argibideak emateko, errekurtsoaren bidez jakinarazten du jarduera hori kontsulta pribatuan zein autonomiaz egiteko asmoa duela, bi kasuetan lan-ordutegitik kanpo eta osasun eta lan-arloan indarrean dagoen legeria beteta.

sanitaria como fisioterapeuta a tiempo parcial, sin especificar si sería por cuenta ajena o propia. A efectos aclaratorios, por medio del recurso comunica que la intención es ejercer dicha actividad tanto en consulta privada como autónomamente, en ambos casos fuera del horario laboral y cumpliendo la legalidad vigente en materia sanitaria y laboral.

Azaldutakoagatik, berraztertzeko errekurtsoa baiestea eskatzen du, eta, ondorioz, berariazko ebazpena ematea, eskatutako bateragarritasuna baimentzeko lanaldi partzialeko fisioterapeuta gisa jarduteko, besteren kontura edo autonomo gisa, udaltzaingoaren agente lan-ordutegitik kanpo eta bateraezintasunei buruzko araudiaren arabera.

Por lo expuesto, solicita que se estime el recurso de reposición y, en consecuencia, se dicte resolución expresa autorizando la compatibilidad solicitada para ejercer como fisioterapeuta a tiempo parcial, ya sea por cuenta ajena o como autónomo, fuera del horario de trabajo como agente de la Guardia Municipal y conforme a la normativa de incompatibilidades.

Bateragarritasuna eskatzen duen jarduera fisioterapeuta da. Fisioterapeuta lanbidean aritzeak jarduera pribatu batean aritze adakar.

La actividad para la que solicita la compatibilidad es la de fisioterapeuta, El ejercicio de la profesión de fisioterapeuta supone el ejercicio de una actividad privada.

Shadi Masri Orradre udaltzain postuan dago, Prebentzio Iraunkorreko Unitateko agente postuan. Lanpostu horrek dedikazio osagarri bat du, eskatzen zaienean bere lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzera joateko prestasuna ezartzen duena. Prestasun horretaz gain, lanpostuari gutxienez 15 orduko dedikazioa eskatuko zaio urtean bere ohiko lanalditik kanpo. Gainera, hiru txandatan egiten du lan, goizez/arratsaldez/gauez.

Shadi Masri Orradre ocupa plaza de Guardia Municipal, en el puesto de Agente de la Unidad de Prevención Permanente. Dicho puesto tiene un complemento de dedicación que establece la disponibilidad para acudir a cumplir las funciones propias de su puesto de trabajo cuando les sea requerido. Además de dicha disponibilidad, se exigirá al puesto una dedicación mínima de 15 horas anuales fuera de su jornada habitual de trabajo. Además trabaja a tres turnos, mañana/tarde/noche.

Kontuan izanik Administrazioa behartuta dagoela erreklamazio guztiei erantzutera, eta, beraz, lehenengo eskaerari erantzun behar diola, eta jarritako errekurtsoan eskaera bera egiten duela, erabaki bakar baten bidez ebatziko dira.

Teniendo en cuenta que la Administración está obligada a responder a todas las reclamaciones, por lo que debe responder a la primera solicitud, y que en el recurso interpuesto realiza la misma solicitud, se resolverán mediante un único acuerdo.

Administrazio-isiltasunari dagokionez, esan behar da Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, hamaikagarren xedapen gehigarrian, isiltasunak lege berean aurreikusitako prozeduretan izango dituen ondorioak ezartzen dituela:

"Berariazko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea igarotakoan, ezetsitzat joko dira interesdunek lege honetan aurreikusitako prozedura hauetan egindako eskaerak:

(…)

j) bateragarritasun-eskaerak. "

Bestalde, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak, bateragarritasunei dagokionean honako hau ezartzen du 113. artikuluan:

"Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileek indarrean dagoen legedian ezarritako bateraezintasun araubidea bete beharko dute, eta euskal administrazio publikoek, berriz, araubide hori bete dadila eskatu beharko dute.

Ezin izango dute bateragarri egin beren jarduerak eta beren kabuz edo bigarren lanpostu bat ordezkatuz sektore publikoan edo pribatuan kargu edo jarduera bat betetzea.

Hala ere, lanpostu, kargu, lanbide edo jarduera publiko edo pribatu bat bete ahal izango dute, indarrean dagoen araudian administrazio publikoen zerbitzura dauden langileentzat aurreikusitako kasu eta baldintza eta betekizunekin (...) ".

Respecto al silencio administrativo, hay que señalar que la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco en su Disposición adicional undécima establece los efectos del silencio en los procedimientos previstos en la misma ley:

“Se entenderán desestimadas, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar y notificar la resolución expresa, las solicitudes formuladas por las personas interesadas en los siguientes procedimientos previstos en esta ley:

(…)

j) solicitudes de compatibilidad.”

Por otro lado, el Decreto legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco establece en su artículo 113 respecto a las incompatibilidades.

“El personal de la Policía del País Vasco vendrá obligado a observar estrictamente el régimen de incompatibilidades establecido en la legislación vigente, y las administraciones públicas vascas a la exigencia de su cumplimiento.

No podrán compatibilizar sus actividades con el desempeño por sí o mediante sustitución de un segundo puesto de trabajo cargo o actividad en el sector público o privado.

No obstante, podrán desempeñar un puesto de trabajo, cargo, profesión o actividad pública o privada en los supuestos y con las condiciones y requisitos previsto para el personal al servicio de las administraciones públicas en su normativa vigente (…)”.

Jarduera pribatuen bateragarritasunari buruz, Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 11.etik 15.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da. Lege horren 14. artikuluak ezartzen du: *"jarduera profesionalak, lanekoak, merkataritzakoak edo industrialak administrazio publikoetatik kanpo egiteko, aldez aurretik bateragarritasun-aitorpena beharko da".*

En relación a la compatibilidad de las actividades privadas, son de aplicación lo dispuesto en los artículos 11 a 15 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al servicio de las Administraciones Públicas. El artículo 14 de la citada Ley establece que *"el ejercicio de actividades profesionales, laborales, mercantiles o industriales fuera de las Administraciones Públicas requerirá el previo reconocimiento de compatibilidad".*

Ildo beretik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 171. artikuluak honako hau ezartzen du: *"Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera egiteko, aldez aurretik eta berariaz ebaluatu beharko da, eta, hala badagokio, bateragarritasun-baimena eman beharko da. Baimen hori indarrean dagoen legedian aurreikusitako kasuetan baino ez da emango, eta erregelamendu bidez zehaztuko den prozeduraren arabera."*

En el mismo sentido el artículo 171 de la Ley 11/2022 de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco establece: *"El desempeño de cualquier actividad en el sector público o privado requerirá, en todo caso, la previa y expresa evaluación y, en su caso, la correspondiente autorización de compatibilidad, que únicamente se otorgará en los supuestos previstos en la vigente legislación y conforme al procedimiento que reglamentariamente se determine."*

53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 16. artikuluan xedatutakoaren arabera:

> "1. Funtzionarioei, behin-behineko langileei eta lan kontratuko langileei ezin izango zaie inolako bateragarritasunik baimendu edo aitortu, baldin eta estatutu honetako 24. artikuluko b) idatz-zatian aipatzen diren ordainsari osagarriek bateraezintasun-faktorea jasotzen badute arantzel bidez ordaindutakoaren eta zuzendaritzako langileen artean, goi zuzendaritzako lan harreman bereziaren pean dagoena barne.
>
> (...)

De conformidad con lo dispuesto en el art. 16 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas:

> "1. No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad alguna al personal funcionario, al personal eventual y al personal laboral cuando las retribuciones complementarias que tengan derecho a percibir del apartado b) del artículo 24 del presente Estatuto incluyan el factor de incompatibilidad al retribuido por arancel y al personal directivo, incluido el sujeto a la relación laboral de carácter especial de alta dirección.
>
> (…)

4. Era berean, salbuespenez eta lege honen 1., 3., 11., 12. eta 13. artikuluetan ezarritako mugei kalterik egin gabe, jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna aitortu ahal izango zaie berariazko osagarriak edo pareko kontzeptuak jasotzen dituzten lanpostuetan diharduten langileei, baldin eta haien oinarrizko ordainsariaren % 30 gainditzen ez badute, antzinatasunean jatorria duten kontzeptuak alde batera utzita. "

4. Asimismo, por excepción y sin perjuicio de las limitaciones establecidas en los artículos 1º.3, 11, 12 y 13 de la presente Ley, podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o concepto equiparable, cuya cuantía no supere el 30 por 100 de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad.”

Oinarrizko Estatutua garatzen duen Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriak honako hau xedatzen du:

La disposición adicional trigésimo primera de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, por la que se desarrolla el Estatuto Básico, determina que:

“1. Euskal herri-administrazioetako funtzionarioek betetzen duten lanpostuari dagokion berariazko osagarria edo pareko kontzeptua murrizteko eskatu ahal izango dute, Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen den ehunekoa ez gainditzeko eta jarduera pribatuetan aritzeko bateragarritasuna eskatu ahal izateko ".

“1. El personal funcionario de las administraciones públicas vascas podrá solicitar la reducción del complemento específico, o concepto equiparable, correspondiente al puesto que desempeña, con el fin de que no supere el porcentaje al que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, y pueda solicitar la compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas”.

Eskatzaileak 29.417,08 euroko berariazko osagarria du esleituta urtean, eta horrek nabarmen gainditzen du oinarrizko soldataren gainean ezarritako % 30eko muga (3.618,13 euro urtean), jarduera publikoaren eta pribatuaren arteko bateragarritasuna lortu ahal izateko, muga hori gainditu arte osagarria murrizten ez bada.

El solicitante tiene asignado un complemento específico de 29.417,08 euros anuales, lo que supera ampliamente el límite de 30% establecido sobre el sueldo base (3.618,13 euros anuales) para poder obtener la compatibilidad entre la actividad pública y la privada, salvo que reduzca el complemento hasta no superar dicho límite.

Bestalde, Prebentzio Iraunkorreko Unitateko agente postuak arduraldi bereziko osagarria dauka esleituta, eta horrek ezartzen du

Por otro lado, su puesto de trabajo Agente de la Unidad de Prevención Permanente tiene asignado un Complemento de Dedicación

lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzera joateko prestasuna, hala eskatzen denean. Prestasun horretaz gain, lanpostuari gutxienez 15 orduko dedikazioa eskatuko da urtean bere ohiko lanalditik kanpo.

Especial, que establece la disponibilidad para acudir a cumplir las funciones propias de su puesto de trabajo cuando les sea requerido. Además de dicha disponibilidad, se exigirá al puesto una dedicación mínima de 15 horas anuales fuera de su jornada habitual de trabajo.

Horrek esan nahi du lanpostura joan behar duela bere ohiko lanalditik kanpo eskatzen zaionean; beraz, ordutegi-bateraezintasuna sor daiteke. Gainera, hiru txandatan lan egiten du, eta beste jarduera batean lan eginez gero, eragin negatiboa izan dezake udaltzain gisa jarduteko behar duen atsedenean.

Esto significa que tiene que acudir a su puesto de trabajo cuando es requerido fuera de su jornada habitual de trabajo, por lo que puede surgir una incompatibilidad horaria. Además trabaja a tres turnos, y trabajando en otra actividad, puede influir negativamente en el descanso necesario para desempeñar adecuadamente sus funciones como Agente de la Guardia Municipal.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, Abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 14. artikuluaren arabera, toki korporazioko osoko bilkurari dagokio sektore pribatuko bigarren postu baterako bateragarritasun-baimena ematea.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 14 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, la autorización de compatibilidad para un segundo puesto en el sector privado corresponde al Pleno de la Corporación Local.

Aurreko guztiagatik, egokitzat jotzen da proposatzea udalbatza honi honako:

Por todo cuanto antecede, se tiene a bien proponer al Excmo. Ayuntamiento Pleno, la adopción de los siguientes:

AKORDIOAK

ACUERDOS

Lehenengoa: Ezestea 2025eko urtarrilaren 16an aurkeztutako eskaera Shadi Mashri Orradre karrerako funtzionarioari fisioterapeuta gisa sektore pribatuan bigarren lanpostu bat garatzeko bateragarritasun eskaera, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Primero: Desestimar la solicitud presentada el 16 de enero de 2025 de compatibilidad al funcionario de carrera Shadi Mashri Orradre para desarrollar un segundo puesto de trabajo en el sector privado como fisioterapeuta, por no cumplirse los requisitos establecidos en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

**Bigarrena:** Ezestea Shadi Mashri Orradrek bigarren jarduera egiteko baimena

Segundo: Desestimar el recurso de reposición presentado en fecha 17 de abril de 2025 por

administrazioaren isiltasunez ezestearen aurka 2025eko apirilaren 17an aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa, azalpen-zatian ezarritako arrazoiengatik.

Shadi Mashri Orradre contra la desestimación por silencio administrativo de la autorización para el desempeño de segunda actividad, por las razones establecidas en la parte expositiva.

Donostian, sinaduraren datan

LANGILERIA KUDEATZEKO ETA ADMINISTRATZEKO ZERBITZUAREN BURUA

PERTSONEN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**------------------**

**Gai Zerrendako 7. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 7 del Orden del Día del Pleno.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**7. Psicoterapiako jarduera pribatua garatzeko bateragarritasun-aitorpena ezestea.**

“UDALBATZARRARI

**7. Desestimación de reconocimiento de compatibilidad para desarrollar actividad privada de psicoterapia.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

LEHENENGOA.- Isla Montoya Sanzek, 2025-03-31ko idazkiaren bidez, honako hau eskatu zuen:

1.- % 50eko lanaldia % 100era arte osatzea.

2.- Aurreko eskaeraren erantzuna ezezkoa bada, bateragarritasun-baimena eskatzen du administrazio publikoan egiten duen jardueraren eta sektore pribatuan egiten duen jardun profesionalaren artean.

BIGARRENA.- Montoya andreak, 2025-03-30etik, psikologo-lanak egiten ditu gizarte-ekintzan. 2024- 12-30eko epai judizial batean du jatorria izendapenak.

HIRUGARRENA.- Epai hori betez, Pertsonen, Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketaren zinegotzi ordezkariak 2025-03-19an emandako ebazpenaren bidez, honako hau ebatzi zen:

Lehenengoa: Donostiako Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegiak emandako 000394/2024 epaia betearaztea. Epai horren bidez, baietsi egiten da Isla Montoya Sanz andreak 2024ko abenduaren 30ean aurkeztutako demanda, eta aitortzen zaio lan-kontratu mugagabeko langilea dela, eta ez dela finkoa udal honetako Prebentzio, Haur eta Familia Zerbitzuko psikologo gisa edo haren lanpostu baliokide gisa.

Bigarrena: Isla Montoya Sanz andreari, Prebentzio, Haur eta Familia Zerbitzuko psikologo gisa, % 50eko lanaldi partzialeko lan-kontratu mugagabe ez-finkoa egitea, urteko 25.880,98€ gordineko ordainsari gordinarekin eta 2021/07/5etik antzinatasunarekin.

PRIMERO.- Isla Montoya Sanz, mediante escrito de fecha 31-03-2025 solicita:

1º.- Complementar su jornada de 50% hasta el 100% de jornada.

2º.- Si la respuesta a la solicitud anterior fuere negativa, solicita la autorización de compatibilidad entre su actividad en la administración pública y el ejercicio profesional en el sector privado.

SEGUNDO.- La Sra. Montoya, desde el 30-03-2025, realiza funciones de Psicóloga en Acción Social. El nombramiento tiene su origen en una sentencia judicial de fecha 30-12-2024.

TERCERO.- En ejecución de la citada sentencia, mediante resolución del Concejal delegado de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria, de fecha 19-03-2025 se resolvió:

Primero: Ejecutar la sentencia n.º 000394/2024 dictada por el Juzgado de lo Social n.º 1 de San Sebastián por la que se estima la demanda interpuesta por Doña Isla Montoya Sanz de fecha 30 de diciembre de 2024, reconociéndole la condición de laboral indefinida no fija como Psicóloga del Servicio de Prevención, Infancia y Familia de este Ayuntamiento o su puesto equivalente.

Segundo: Realizar un contrato laboral indefinido no fijo a jornada parcial del 50% a Doña Isla Montoya Sanz como Psicóloga del Servicio de Prevención, Infancia y Familia, con la retribución bruta anual de 25.880,98€ brutos anuales y con antigüedad desde el 5/07/2021.

LAUGARRENA.- Lanaldiaren % 50a lanaldiaren % 100era arte osatzeko eskaera ezetsi egin denez, udal honetan eskatzaileak egiten duen jarduerar en eta sektore pribatuan egiten duen jarduera profesionalaren arteko bateragarritasuna baimentzeko eskaera ebazten da.

Eskatzaileak alegatu du:

- 2025eko martxoaren 28ra arte, psikologo kontratua zuen HZ enpresaren bidez, KASUEN KUDEATZAILE lanpostu bat betetzen zuen (lehen psikologo komunitarioa deitua). Aldeko epaiaren ondorioz, martxoaren 31tik aurrera, funtzio berberak betetzen hasi zen zuzenean Donostiako Udalean, eta lanpostua Gizarte Ekintzako Psikologo izendatua izan zen. Postu hori, haurtzaroko teknikari gisa, udaleko gizarte zerbitzuen parte da, eta esku-hartze sozial edo psikologiko komunitarioaren eremuan koka liteke.

Bestalde, zeregin hori psikoterapeuta (psikologo sanitario orokorra) gisa egiten duen lanarekin uztartzen du, bere titulartasuneko kontsulta batean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren bidez arautua osasun-zentro gisa. Bere kontura egiten duen lana, psikologia klinikoaren eta osasunaren barruan sartzen dena. Lanpostu bakoitzaren profil profesionala, funtzioak eta helburuak guztiz desberdinak dira.

- Donostiako Udalean haurren teknikari gisa lan egiten du, haur eta nerabeen babesgabetasun kasuen kudeaketan.

Betekizunei eta lanbide-profilari dagokienez, ez da beharrezkoa Psikologiako gradua edo

CUARTO.- Dado que la solicitud de complementar su jornada de 50% hasta el 100% de jornada ha sido desestimada, se procede a resolver la solicitud de autorización de compatibilidad entre su actividad en este Ayuntamiento y el ejercicio profesional en el sector privado.

La solicitante alega:

- Hasta el 28 de marzo de 2025, a través de la empresa HZ, con la que tenía un contrato de psicóloga, cubría un puesto de GESTORA DE CASOS (anteriormente llamado Psicóloga comunitaria) y que, a raíz de la sentencia favorable, desde el 31 de marzo ha pasado a ejercer con las mismas funciones directamente para el Ayuntamiento de Donostia, denominándose el puesto de Psicóloga de Acción Comunitaria. Este puesto como técnica de infancia, forma parte de los servicios sociales municipales, podría situarse dentro del ámbito de la intervención social o psicológica comunitaria.

Por otro lado, viene compaginando esa labor con un trabajo como psicoterapeuta (psicóloga general sanitaria) en una consulta de la que es titular, regulada a través del departamento de Sanidad del Gobierno Vasco como Centro sanitario. Trabajo que realiza por cuenta propia y se engloba dentro de la psicología clínica y de la salud. El perfil profesional, las funciones y los objetivos de cada puesto de trabajo son totalmente diferentes.

- En el Ayuntamiento de San Sebastián trabaja como Técnica de Infancia, en gestión de casos de desprotección infantil y adolescente.

En cuanto a los requisitos y perfil profesional, no es necesario estar en posesión de grado o

lizentziatura izatea, gizarte-zientzietako graduatu askok betetzen duten lanpostua izan daiteke, eta, horregatik, psikologo komunitario gisa profesionalak identifikatzetik KASUEN KUDEATZAILE gisa identifikatzera igaro ziren.

- Helburua haurren eta nerabeen babesa bermatzea da, familien ongizatea sustatzea, laguntzea eta babestea, hori guztia Gizarte Zerbitzuen Legearekin, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko legearekin eta adingabearen babes juridikoari buruzko lege organikoarekin bat etorriz.

- Gizarte Ekintzako Zuzendaritzan astearte asteazken eta ostiraletan lan egiten du, 09:00etatik 15:00etara.

- KONTSULTA PRIBATUKO LANA. Psikologo orokor sanitario psikoterapeuta gisa lan egiten du ISLA MONTOYA SANZ PSIKOTERAPIA osasunzentroan. Psikoterapia egiten du. Tratamendu psikologiko horren helburua da, teknika eta metodo psikologikoen bidez, pertsonei laguntzea elkar hobeto ulertzen, emozioak kudeatzen, jokabide disfuntzionalak aldatzen eta ongizate psikologikoa eta erlazionala hobetzen.

- Psikoterapeuta izateko baldintza psikologian edo medikuntzan lizentziaduna izatea da, psikoterapian prestakuntza espezifikoa izanik.

- Ordutegia da astelehen eta ostegunetan 10:00etatik 19:00etara, eta astearteetan 16:00etatik 19:00etara.

- Bateragarritasun-baimenaren justifikazioa:

• Eginkizunen arteko aldea: Bere lanpostu

licenciatura en Psicología, puede ser un puesto desempeñado por múltiples graduados en ciencias sociales, por ello se pasó de identificar a los profesionales como Psicólogos comunitarios a identificarlos como GESTORES DE CASOS.

- El objetivo es garantizar la protección de niños, niñas y adolescentes, promover el bienestar de las familias, ayudarlas y apoyarlas, todo ello de conformidad con la ley de Servicios Sociales, la ley de atención y protección a la infancia y a la adolescencia y la ley Orgánica de protección jurídica del menor.

- El horario en que trabaja en la Dirección de Acción Social es martes, miércoles y viernes de 09:00 a 15:00 horas.

- TRABAJO EN CONSULTA PRIVADA. Trabaja como psicóloga general sanitaria psicoterapeuta en Centro sanitario ISLA MONTOYA SANZ PSICOTERAPIA. Lleva a cabo la psicoterapia, que es un tratamiento psicológico que, mediante técnicas y métodos psicológicos tiene como objetivo ayudar a las personas a comprenderse mejor, gestionar sus emociones, cambiar sus conductas disfuncionales y mejorar su bienestar psicológico y relacional.

- El requisito para ser psicoterapeuta es ser licenciado en psicología o medicina, con formación específica en psicoterapia.

- El horario es lunes y jueves de 10:00 a 19:00 y los martes de 16:00 a 19:00.

- Justificación para la autorización de compatibilidad:

• Diferencia de funciones: En su puesto

publikoan ez du esku-hartze psikoterapeutikorik egiten; kontsulta pribatuan, berriz, psikoterapian soilik egiten du lan.

público no realiza intervención psicoterapeútica, mientras que en la consulta privada su labor se centra exclusivamente en la psicoterapia.

• Interes-gatazkarik eza: A priori ez dago bi jardueren arteko gainjartzerik, ezta bere funtzio publikoa betetzean inpartzialtasuna arriskuan jar lezakeen harremanik ere, lan independenteak baitira eta ez baitute puntu komunik. Hala ere, bere jokabidea arautzen duen kode deontologiko bat dago.

• Ausencia de conflicto de intereses: A priori no existe solapamiento entre ambas actividades ni una relación que pudiera comprometer la imparcialidad en el desempeño de su función pública, ya que son labores independientes y sin puntos en común. No obstante existe un código deontológico que rige su conducta.

Gerta daiteke momentoan edo aurreko bi urteetan haurtzaroko espedientea irekita duen norbait joatea bere kontsultara. Haurtzaroko espedientea irekita duen adingabeko senitartekoren bat duen pertsona bat joan daiteke bere kontsultara. Kasu horretan ez luke tratamendua hasiko edo jarraituko. Ez luke onartuko kontsultan haurtzaroko espediente bat irekita izan duen inor.

Puede ocurrir que acuda a su consulta alguien con expediente de infancia abierto en el momento o dos años anteriores. Podría acudir a su consulta una persona que tiene algún familiar menor con expediente de infancia abierto. En este caso no iniciaría o continuaría tratamiento. No aceptaría en consulta ninguna persona que haya tenido un expediente de infancia abierto.

Gerta daiteke paziente edo paziente ohi bati haurtzaroko espediente bat irekitzea. Jarduera publikoan haurren batzordeak daude eta kasua nori esleitzen zaion zehazten du.

Puede ocurrir que se le abra un expediente de infancia a alguno de sus pacientes o expacientes. En la actividad pública existen las comisiones de infancia y determina a quien se le asigna el caso.

Bere lanean psikoterapeuta gisa identifikatzen duen babesgabetasun-egoera bat gertatzen ari dela uste badu, egoera jakinaraziko luke.

Si considera que se está dando una situación de desprotección que identifica en su labor como psicoterapeuta, notificaría la situación.

• Bateraezintasunen legeak ez ditu lanaldi partzialak aipatzen.

• La ley de incompatibilidades no hace referencia a las jornadas parciales.

• Zinpeko aitorpena, Administrazio Publikoan duen lanpostua kontsulta pribaturako pazienteak lortzeko inoiz erabili ez duela eta

• Declaración jurada de que nunca ha utilizado ni utilizaría su puesto de trabajo en la Administración Pública para obtener

erabiliko ez lukeela dioena.

Amaitzeko, bateragarritasun-baimena eskatzen du bere jarduera pribatua psikoterapeuta sanitario orokor gisa norberaren kontsultan egin ahal izateko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoan dituen erantzukizunak betetzea.

pacientes para la consulta privada.

Termina solicitando la autorización de compatibilidad para poder desempeñar su actividad privada como psicóloga general sanitaria (psicoterapeuta) en consulta propia, sin perjuicio del cumplimiento de sus responsabilidades en la Administración Pública.

OINARRI JURIDIKOAK.

LEHENENGOA.- Eskatzaileak psikologo (Gizarte Ekintza) lanak egiten ditu udal honetan. Eginkizun horiek betetzeko, Psikologiako lizentziatura edo gradu baliokidea eduki behar da. Beraz, ezin da lanpostua bete gizarte-zientzietako edozein graduaturekin, eskatzaileak dioen bezala.

Hauek dira bete beharreko eginkizunak:

- Adingabeen aurkako arrisku-kasuak edo tratu txarrak, jokabide desegokituak, horien gizarteondorioak, familia-arazoekiko lotura eta abar detektatzea, aztertzea eta balioestea.

- Anbulatorioetatik, fiskaltzatik, pedagogia orientazioko zentroetatik eta ikastetxeetatik eratorritako kasuak jasotzea eta tratatzea.

- Tratu txarrak, babesgabetasuna edo haurren babesgabetasuna gertatzeko arriskua dagoenean, familian esku hartzeko plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egitea.

- Aldundiarekin egindako bileretan parte hartzea, berariazko neurri teknikei lotutako kasuak eztabaidatu eta diagnostikatzeko.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS:

PRIMERO.- La solicitante realiza funciones de Psicóloga (Acción Social) en este Ayuntamiento. Para realizar dichas funciones se exige estar en posesión de Licenciatura en Psicología o Grado equivalente. Por lo tanto, no se puede ocupar el puesto con cualquier graduado en ciencias sociales como señala la solicitante.

Las funciones a desempeñar son:

-Detección, análisis y valoración de casos de riesgo o maltrato a menores, conductas inadaptadas, repercusiones sociales de éstas, asociación con problemas familiares, etc.

-Recepción y tratamiento de casos derivados de ambulatorios, fiscalía, Centros de Orientación Pedagógica y Centros Escolares.

- Planificación, seguimiento y evaluación de Intervención Familiar en casos de riesgo de maltrato, desamparo o desprotección infantil.

- Participación en reuniones con Diputación para la discusión y diagnóstico de casos considerados como sujetos a medidas técnicas específicas.

- Saileko Gizarte Laneko teknikarien eta hezitzaileen taldeekin koordinatzea, familia eta haurtzaroko kasuak edozein fasetan tratatzeko.

- Coordinación con equipos de Técnicos/as en Trabajo Social y Educadores/as del Departamento, en el tratamiento de casos de familia e infancia en cualquiera de sus fases.

- Lanpostuaren kualifikazioarekin bat datozen agindutako beste zeregin batzuk, aurrekoak alde batera utzi gabe.

- Otras tareas encomendadas acordes con la cualificación del puesto y sin perjuicio de las anteriores.

BIGARRENA.- Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak honela dio 171. artikuluan:

SEGUNDO.- La Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, en su artículo 171, establece:

“1.– Enplegatu publikoek zorrotz bete behar dute indarrean dauden legeetan jarritako bateraezintasun-araubidea, eta euskal administrazio publikoek hori bete dadin eskatu behar dute.

“1.- El personal empleado público vendrá obligado a observar estrictamente el régimen de incompatibilidades establecido en la legislación vigente, y las administraciones públicas vascas, a la exigencia de su cumplimiento.

2.– Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera betetzeko, berariazko ebaluazioa egin beharko da aurrez eta, hala badagokio, bateragarritasun baimena beharko da, zeina bakar-bakarrik emango baita indarrean den legedian aurreikusitako egoeretan eta erregelamenduz erabakitzen den prozedurari jarraikiz.”

2.- El desempeño de cualquier actividad en el sector público o privado requerirá, en todo caso, la previa y expresa evaluación y, en su caso, la correspondiente autorización de compatibilidad, que únicamente se otorgará en los supuestos previstos en la vigente legislación y conforme al procedimiento que reglamentariamente se determine.

HIRUGARRENA.- Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak honako hau jasotzen du 11. artikuluan:

TERCERO.- La Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas recoge en su artículo 11 lo siguiente:

“1. Lege honetako 1. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, lege honen aplikazio eremuan sartzen diren langileek ezin izango dute beren kabuz edo ordezkapen bidez jarduera pribaturik egin, ezta jarduera profesionalak ere, beren kontura edo destinatuta dauden sail, organismo edo

“1. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 1º,3, de la presente Ley, el personal comprendido en su ámbito de aplicación no podrá ejercer, por sí o mediante sustitución, actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sean por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o

erakundeak garatzen dituen erakunde edo partikularren menpe edo zerbitzura.

Debeku horretatik salbuetsita daude, legez aitortutako eskubide bat baliatuz, zuzenean interesdun direnek beren buruarentzat egiten dituzten jarduera partikularrak. "

12. artikuluak ere honako hau jasotzen du:

“1. Nolanahi ere, lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek ezin izango dituzte honako jarduera hauek gauzatu:

a) Jarduera pribatuak egitea, lanbide-jarduerak barne, dela bere kontura, dela Erakundeen edo partikularren mende edo zerbitzura, esku hartzen ari den gaietan, dela azken bi urteetan esku hartu duen gaietan, dela lanpostu publikoa dela-eta esku hartu behar duen gaietan.

Bateraezintasun horren barruan sartzen dira, bereziki, lanpostu publikoa betetzera behartuta dauden pertsonei emandako jarduera profesionalak.”

Bestalde, aipatutako legearen 16.4 artikuluak ezartzen duenez, ezin izango zaie jarduera pribatuekin bateragarritasunik aitortu berariazko osagarriak edo kontzeptu parekagarriak jasotzen dituzten lanpostuetan diharduten langileei, baldin eta oinarrizko ordainsariaren % 30 gainditzen badute, antzinatasunean jatorria duten kontzeptuak alde batera utzita.

LAUGARRENA.- 53/1984 Legean jasotzen den bateraezintasun-araubidearen helburua da enplegatu publikoak lanpostu publiko bakar

particulares que se relacionen directamente con las que desarrolle el Departamento, Organismo o Entidad donde estuviera destinado.

Se exceptúan de dicha prohibición las actividades particulares que, en ejercicio de un derecho legalmente reconocido, realicen para sí los directamente interesados.”

También el artículo 12 recoge lo siguiente:

“1. En todo caso, el personal comprendido en el ámbito de aplicación de esta Ley no podrá ejercer las actividades siguientes:

a) El desempeño de actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sea por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares, en los asuntos en que esté interviniendo, haya intervenido en los dos últimos años o tenga que intervenir por razón del puesto público.

Se incluyen en especial en esta incompatibilidad las actividades profesionales prestadas a personas a quienes se esté obligado a atender en el desempeño del puesto público.”

Por otra parte, el artículo 16.4 de la mencionada Ley establece que no se podrá reconocer compatibilidad para el ejercicio con actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos o concepto equiparable, cuya cuantía supere el 30% de su retribución básica excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad.

CUARTO.- El régimen de incompatibilidades que se recoge en la Ley 53/1984 persigue la dedicación del empleado público a un solo

batean jardutea eta bere neutraltasuna eta independentzia. Horrela, bada, aipatutako legearen lehenengo artikuluaren hirugarren puntuak honako hau jasotzen du:

"Nolanahi ere, lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek lanpostu bat betetzea bateraezina izango da edozein kargu, lanbide edo jarduera publiko edo pribaturekin, baldin eta horrek beren betebeharrak zorrotz betetzea eragotzi edo kaltetu badezake, edo beren inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jar badezake."

Beraz, helburu nagusia da enplegatu publikoen jarduera publikoen eta pribatuen arteko interes-gatazka saihestea, funtzionarioak zein lan kontratupekoak izan.

Era berean, kontuan hartu behar da bateraezintasun-sistemarekin lotura estuan daudela urriaren 30eko 5/2025 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 53.5 eta 53.6 artikuluetan ezarritako betebeharrak. Artikulu horietan zehazten da, hurrenez hurren, enplegatu publikoak bere lanpostu publikoarekin interes-gatazka sortzeko arriskua ekar dezakeen jarduera pribatu edo interes orori uko egin behar diola.

BOSGARRENA.- Eskatzaileak psikologo gisa egiten du lan udal honetan, eta adingabeen babesgabetasunarekin lotutako eginkizunak ditu.

Beraz, pertsona ahulekin lan egiten du, eta pertsona horiek, beren bizi-garapenerako eta garapen emozionalerako, laguntza profesional psikologikoa beharko dute kasu gehienetan;

puesto público y su neutralidad e independencia. Así, el artículo primero de la citada Ley, en su punto tres, recoge:

“En cualquier caso, el desempeño de un puesto de trabajo por el personal incluido en el ámbito de aplicación de esta Ley será incompatible con el ejercicio de cualquier cargo, profesión o actividad,público o privado, que pueda impedir o menoscabar el estricto cumplimiento de sus deberes o comprometer su imparcialidad o independencia. “

Por lo tanto, la finalidad primordial es evitar el conflicto de intereses entre las actividades públicas y privadas de los empleados públicos, sean funcionarios o contratados en régimen laboral.

Asimismo, cabe observar como en estrecha relación con el sistema de incompatibilidades, se encuentran las obligaciones establecidas en los artículos 53.5 y 53.6 del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto legislativo 5/2025, de 30 de octubre, que determinan, respectivamente, tanto el deber del empleado público de abstenerse de toda actividad privada o interés que pueda suponer un riesgo de plantear conflicto de intereses con su puesto público.

QUINTO.- La solicitante trabaja como Psicóloga en este Ayuntamiento, siendo sus funciones relacionadas con la desprotección de menores.

Por lo tanto, trabaja con personas vulnerables, que para su desarrollo vital y emocional van a necesitar de ayuda profesional psicológica en la mayoría de los casos, por lo que son

beraz, kontsulta pribatuen bezero izan daitezke. Hala, eskatzaileak adierazitakoari erreparatzen badiogu, kontsulta pribatuan eskaintzen duen tratamenduaren helburua da pertsonei laguntzea beren burua hobeto ulertzen, emozioak kudeatzen, jokabide disfuntzionalak aldatzen eta ongizate psikologikoa eta erlazionala hobetzen.

Idatzian aipatzen duen kode deontologikoa eskatzaileak betetzen duela zalantzan jartzen ez bada ere, administrazioak beharrezko neurriak jarri behar ditu interes-gatazka saihesteko, pertsona bera bere lanpostu publikoan eta kontsulta pribatuan artatzeko aukeraren aurrean sor baitaiteke. Arrisku hori saihestu egin behar da.

Bateraezintasun funtzional horretaz gain, ez da bidezkoa eskatutakoa baiestea, ez baita betetzen Bateraezintasunei buruzko Legearen 16.4artikuluan xedatutakoa; izan ere, Montoya andreak jasotzen duen berariazko osagarriaren zenbatekoak oinarrizko ordainsariaren % 30 gainditzen du, antzinatasunean jatorria duten kontzeptuak kenduta.

Bateraezintasunei buruzko Legearen 14. artikuluaren arabera, Udalbatzak du bateragarritasuna aitortzeko edo bateraezintasuna deklaratzeko eskumena.

Aurrean ezarritako guztia kontuan hartuz, egokitzat jotzen da Udalbatza honi ondoko akordioa hartzea proposatzea:

Isla Montoya Sanzek 2025-03-31ko idazkiaren bidez eskatutako bateragarritasun-aitorpena ezestea, azalpen-zatian azaldutako arrazoiengatik.

potenciales clientes de las consultas privadas Así, si atendemos a lo que señala la solicitante, en su consulta privada, el tratamiento que ofrece tiene como objetivo ayudar a las personas a comprenderse mejor, gestionar sus emociones, cambiar sus conductas disfuncionales y mejorar su bienestar psicológico y relacional.

Si bien no se duda del cumplimiento, por la solicitante, del código deontólogico al que hace referencia en su escrito, la administración tiene que poner las medidas necesarias para evitar el conflicto de intereses que podría surgir ante la posibilidad de atender a una misma persona en el desempeño de su puesto público y en su consulta privada. Este riesgo es el que hay que evitar.

Además de esta incompatibilidad funcional, no procede estimar lo solicitado ya que no se cumple lo dispuesto en el artículo 16.4 de la Ley de Incompatibilidades, ya que la cuantía del complemento específico que percibe la Sra. Montoya, supera el 30% de su retribución básica excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad.

De conformidad con el artículo 14 de la Ley de Incompatibilidades, para reconocer la compatibilidad o declarar la incompatibilidad es competente el Pleno del Ayuntamiento.

Por cuanto antecede, se tiene a bien proponer al Excmo. Ayuntamiento Pleno, la adopción del siguiente acuerdo:

Desestimar el reconocimiento de compatibilidad solicitada por Isla Montoya Sanz, mediante escrito de 31-03-2025, por las razones expuestas en la parte expositiva.

Donostian, sinaduraren egunean.

LANGILERIA KUDEATZEKO ETA ADMINISTRATZEKO ZERBITZUAREN BURUA

PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA”.

Eztabaida hasita, Jabier Vitoria Roma jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, interviene en este punto el señor D. Jabier Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.**

**---------------**

**II.**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II.**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunarekin, Alkate-Udalburuak 8. eta 10. gaiak eta II.2.6. kontrol mozioa batera jorratzea erabaki du.

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Alcalde - Presidente decide tratar de forma conjunta los asuntos n.º 8, n.º 10 y la moción de control n.º II.2.6.

* * * *

**8. Mozio Arrunta, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola zatietan trenbidea estaltzeari buruzkoa.**

**8. Moción Ordinaria, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la cobertura de las vías del Topo en los tramos Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola.**

"Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola zatietan trenbidea estaltzeari buruzkoa.

"Juan Karlos Izagirre Hortelano, portavoz del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, relativa a la cubrición de las vías del topo en los tramos Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Bada duela hamarkada bat baino gehiago, Amara Berriko bizilagunak, Udalari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen ari zaizkiela Morlans eta Loiola arteko topoko trenbidea lurperatzeko, trenek sortzen dituzten zaratak eta bibrazioak murrizteko.

Los vecinos y vecinas de Amara Berri llevan más de una década pidiendo al Ayuntamiento y al Gobierno Vasco que soterren las vías del Topo en el tramo que va de Morlans a Loiola, a fin de reducir los ruidos y vibraciones que genera la circulación de trenes.

Eskaera horri erantzunez, 2022an ETSk lizitaziora atera zuen trenbidearen hiri integraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzua 130.000 euroko aurrekontuarekin BEZik gabe.

En respuesta a dicha demanda, en 2022, ETS licitó el servicio de redacción del estudio de alternativas de integración urbana del ferrocarril, con un presupuesto de 130.000 euros, sin IVA.

Typsak egindako txosten edo azterlan horretan, hiri-integraziorako 3 alternatiba eskaintzen ziren, horien artean estalketa.

En este informe o estudio realizado por Typsa se ofrecían 3 alternativas de integración urbana, entre ellas la cubrición.

Horri erantzunez, maiatzaren 6an, Amara Berriko 3 bizilagunek agerraldia egin zuten Legebiltzarrean, trenbidearekin pairatzen

En este contexto, el pasado 6 de mayo, 3 vecinos de Amara Berri comparecieron en el Parlamento Vasco para explicar los problemas

dituzten zarata-arazoak azaltzeko.

Arazo horri erantzuteko, ETSk pantaila batzuk jartzea proposatu du. Baina, pantaila horiek ez dute konpontzen trenbidearen hiri-integrazioa, eta ez dute bermatzen zarata desagertzea. Typsak egindako "Morlans eta Anoeta arteko trenbidearen hiri integraziorako alternatiben azterlanean" argi geratu zen, pantailetatik haratago, beste aukera batzuk ere badaudela, hala nola topoa estaltzearena.

Estaldura horrek, zarata-arazoak konpontzeaz gain, metroaren hiri-integrazioa ere konponduko luke; beraz, konponbide integrala da, auzotarren babesa duena eta herritar guztiengan modu positiboan eragingo lukeena, espazio publikoa lortzen delako beste erabilera batzuetarako.

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta ETSri, Donostiako Udalarekin batera lan egin dezala, Morlans eta Loiola artean topoa estaltzeko irtenbide bat bilatzeko eta ezartzeko, metroaren hiri-integrazioa hobetu eta zarataren arazoa konpon dadin.

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea”.

de ruido que sufren a causa del tráfico ferroviario.

A modo de respuesta a este problema, ETS propone la colocación de una serie de pantallas. Sin embargo, estas pantallas no resuelven la integración urbana del ferrocarril ni garantizan la desaparición del ruido. En el estudio de alternativas realizado por Typsa para la integración urbana del ferrocarril en el tramo Morlans-Anoeta quedó patente que, más allá de la instalación de pantallas, existen otras alternativas, como puede ser el cubrimiento de las vías.

Dicha cubrición, además de solucionar los problemas de ruido, facilitaría también la integración urbana del topo, por lo que se trata de una solución integral, que cuenta con el respaldo del vecindario y que incidiría positivamente al conjunto de la ciudadanía, ya que se obtiene un espacio público para otros usos.

Es por todo ello por lo que presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Vasco y a ETS a colaborar con el Ayuntamiento de Donostia en la búsqueda e implantación de una solución de cubrición del Topo entre Morlans y Loiola para mejorar la integración urbana del topo y solucionar el problema del ruido.

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea”.

**10. Mozio Arrunta, PP Taldeak aurkeztua, Errondo Pasealekuan, Morlans eta Anoeta artean, topoaren trenbidea lurperatzeari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Topoaren trenbidea Errondo pasealekuan, Morlans eta Anoeta artean, lurpetik eramatearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du, Udalbatzan eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentarauak, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoak, honela definitzen du zarata: “Kanpoko soinu baztergarria edo kaltegarria, giza jarduerek sortutakoa, garraiobideak eta industria-jardueren kokalekuak sortutakoa barne”. Zuzentarau hori “gizakiek jasaten duten giro-zaratari” aplikatzen zaio, bereziki leku hauetan izaten bada: eremu urbanizatuak, parke publikoak edo hiri-aglomerazio baten barruko beste leku lasai batzuk, gune lasaiak, eremu irekiak, ikastetxe eta ospitale inguruak, eta zaratarekiko kalteberak diren beste eraikin eta leku batzuk ere.

Zaratari buruzko 37/2003 Legeak zarataren definizio zabala dakar hitzaurrean. Zarata bera (hots moduan hauteman daitekeena) eta bibrazioak hartzen ditu, eta biak sartzen ditu "kutsadura akustikoaren" kontzeptuaren barruan. Hala, kutsadura hori prebenitzea, zaintzea eta murriztea du lege horrek xede.

**10. Moción Ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre soterramiento de las vías del Topo en el paseo de Errondo, entre Morlans y Anoeta.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, para su debate en el Pleno, sobre el soterramiento de las vías del topo en el Pº Errondo, entre Morlans y Anoeta.

JUSTIFICACIÓN

La Directiva 2002/49/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de junio de 2002, sobre evaluación y gestión del ruido ambiental define ruido como «el sonido exterior no deseado o nocivo generado por las actividades humanas, incluido el emitido por los medios de transporte y por emplazamientos de actividades industriales». La Directiva se aplica «al ruido ambiental al que estén expuestos los seres humanos», que se produce en particular en zonas urbanizadas, en parques públicos u otros lugares tranquilos dentro de una aglomeración urbana, en zonas tranquilas, en campo abierto, en proximidades de centros escolares y alrededores de hospitales, así como en otros edificios y lugares vulnerables al ruido.

La Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido, en su preámbulo realiza una definición del ruido en un sentido amplio, comprendiendo tanto el ruido propiamente dicho, perceptible en forma de sonido, como las vibraciones: tanto uno como otras se incluyen en el concepto de "contaminación acústica" cuya prevención,

vigilancia y reducción son objeto de esta ley.

Espainiako legerian, hots-kutsaduraren aurka babestera ere ailegatzen da osasuna (Konstituzioaren 43. artikulua) eta ingurumena (Konstituzioaren 45. artikulua) babesteko konstituzio-agindua. Gainera, kutsadura mota horren aurrean Konstituzioak ematen duen babesa Konstituzioak aitortutako oinarrizko eskubide batzuetan ere badago; besteak beste, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidean, 213/2012 Dekretuaren 18.1 artikuluan jasota baitago eskubide hori. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorrak, berriz, osatu egiten du eskubide hori, eta kutsadura akustikoa prebenitzeko, murrizteko eta zaintzeko arauak jartzen ditu, giza osasuna, ondasunak eta ingurumena babesteko. Eta halako eremu eta ordutegi batzuetan libre diren zarata-mailak ere arautzen ditu, bizitegi-eremuak eta gaueko ordutegiak ere sartuta haietan.

En la legislación española, el mandato constitucional de proteger la salud (artículo 43 de la Constitución) y el medio ambiente (artículo 45 de la Constitución) engloban en su alcance la protección contra la contaminación acústica. Además, la protección constitucional frente a esta forma de contaminación también encuentra apoyo en algunos derechos fundamentales reconocidos por la Constitución, entre otros, el derecho a la intimidad personal y familiar, consagrado en el artículo 18.1. El Decreto 213/2012, de 16 de octubre, que complementa la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco establece normas para prevenir, reducir y vigilar la contaminación acústica, con el objetivo de proteger la salud humana, los bienes y el medio ambiente. Además, se regulan los niveles de ruido permitidos en diferentes zonas y horarios, incluyendo zonas residenciales y horarios nocturnos

Zaratek eta bibrazioek eragindako kutsadura akustikoari aurre egiteko udal-jarduna arautzen duen ordenantzaren 3. artikuluak, berriz, honela definitzen du giroaren zarata: giza jarduerek sortutako kanpoko soinu baztergarria edo kaltegarria, barnean hartuta garraiobideek, ibilgailuen, trenbideen edo aireko trafikoak eta auzo-, industria-, aisia-, merkataritza- eta zerbitzu-jarduerek sortutako zarata.

La ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones, en su artículo 3 define el ruido ambiental como el sonido exterior no deseado o nocivo generado por las actividades humanas, incluido el ruido emitido por los medios de transporte, por el tráfico rodado, ferroviario o aéreo, y por las actividades de vecindad, industriales,de ocio, comerciales y de servicios.

Hori guztia azaldu ondoren, esan dezagun 2022ko irailean, orduko Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak adierazi zuela Eusko Jaurlaritzak, aztertuko zuela, Morlans eta Anoeta arteko topoaren trenbidea lurpetik eramatea.

Expuesto todo esto, en septiembre de 2022, el entonces Consejero de Transportes, Iñaki Arriola, declaró que el Gobierno Vasco estudiaría el soterramiento de las vías del topo entre Morlans y Anoeta.

Zaratak tarte horretan sortzen duen arazoa

El informe que recoge las cinco alternativas

konpontzeko bost alternatiba jasotzen dituen txostenak, Typsa enpresak egindakoak, alternatiba bakoitzak dakartzan lanak egiteko izan behar den aurrekontua ere zehaztu zuen.

Aurtengo otsailean, ordea, ETSk eta Donostiako Udalak Amara Berriko auzo elkartearekin egindako bileran, trenbideak ez zirela lurperatuko esan zieten, eta ezta estaliko ere. Eta ETSk mahai gainean jarri zuen proposamena pantaila batzuk jartzea izan zen, gurpilen mailaraino ailegatuko liratekeen pantaila batzuk; oraindik probatu ez eta, beraz, zarata maila zenbat jaitsiko luketen jakiterik ez dagoen pantaila batzuk jartzea.

Nolanahi ere, alternatiba horrek ez du inguru hartako zarata, soinu eta bibrazio arazoa konpontzen, eta horrek zuzenean urratzen ditu: 2002/49/EE Zuzentaraua, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Espainiako Konstituzioa, urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorra (lehen esandako dekretua osatzen duena), eta zaraten eta bibrazioen ondoriozko kutsadura akustikoari aurre egiteko udal-jarduketa arautzen duen ordenantza.

Horiek horrela direla, hauxe da Alderdi Popularraren udal taldeak dakarren MOZIO ARRUNTA:

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zarataren arloan indarrean den legeria bete eta lurperatzeko topoaren trenbidea Morlans-Anoeta tartean, inguru hartako bizilagunek alde horretatik nozitzen duten erasanari konponbidea emateko.

estudiadas para solventar el problema del ruido en ese tramo, realizado por la empresa Typsa, especificó el presupuesto necesario para la realización de las diferentes alternativas.

Sin embargo, en febrero de este año, en una reunión celebrada entre ETS y el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián con la AAVV de Amara Berri, se les comunicó que las vías no se soterrarían, ni se cubrirían y que la propuesta que ETS puso encima de la mesa era la del apantallamiento a nivel de ruedas. Una propuesta de pantallas que aún no se han probado y que, por tanto, se desconoce los niveles de mitigación del ruido que conseguirían.

En todo caso, esa alternativa no soluciona el problema del ruido en la zona, ni del sonido, ni de las vibraciones, lo que contraviene directamente la Directiva 2002/49/CE; la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido; la Constitución Española y el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, que complementa la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y la La ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones.

Es por ello por lo que el Grupo Municipal del Partido Popular presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a cumplir con la legislación vigente en materia de ruido y soterre las vías del topo en su tramo Morlans-Anoeta, para dar solución así las afecciones que en esta materia sufren los y las vecinas de esa zona.

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea".

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular".

**II.2.6. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola eremuko topoa estaltzeko bizilagunen parte hartzeari buruzkoa.**

**II.2.6. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la participación de los vecinos para cubrir el Topo a su paso entre Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola.**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko ekainaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente **moción de control**, para su tratamiento en el Pleno, como consecuencia de la interpelación presentada ante la Comisión de Espacio Público el pasado 16 de junio de 2025.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

2022ko maiatzean Donostiako Udalbatzak onartu zuen Eusko Jaurlaritzari eskatzea ikertu eta azter zezala Donostiako Udalarekin batera, zer alternatiba jasangarri egon zitezkeen ETS lineako trenen trafikoak Donostiako bizilagunei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

En mayo de 2022 el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián aprobó una moción que instaba al Gobierno Vasco a estudiar y a analizar conjuntamente con el Ayuntamiento de San Sebastián diferentes alternativas sostenibles para minimizar las afecciones a los vecinos y vecinas provocadas por el tráfico ferroviario en la línea ETS en San Sebastián.

Eskaera hori erantzunez, azaroaren 18an ETSk lizitaziora atera zuen Morlans-Anoeta tartean trenbidearen hiri-integraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzua 103.000 euroko aurrekontuarekin.

En respuesta a dicha solicitud, el 18 de noviembre, ETS sacó a licitación el servicio de redacción del estudio de alternativas de integración urbana del ferrocarril en el tramo Morlans-Anoeta, con un presupuesto de 130.000 euros.

Baina azterlan horretan soilik Morlans-Anoeta tartea aztertuko zenez, eta Anoeta-Loiola tartea azterlan horretatik kanpo geratuko

No obstante, dado que en dicho estudio únicamente se abordaría el tramo Morlans-Anoeta, quedando excluido el tramo Anoeta-

zenez, bizilagunen eskaerari erantzun eta 2022ko abenduan mozio bat eraman zuen EH Bilduk Donostiako Udalbatzara. Morlans-Anoeta tartean trenbidearen hiri-integraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzuan, Anoeta – Loiolako zatia estaltzeko azterlana gehitu zezala eskatzeko, eta zorionez onartua izan zen.

Loiola, en diciembre de 2022, EH Bildu presentó una moción al Pleno Municipal de San Sebastián, para solicitar la incorporación del estudio de cubrición del tramo Anoeta - Loiola en el servicio de redacción del estudio de alternativas para la integración urbana del ferrocarril en el tramo Morlans-Anoeta, moción que afortunadamente fue aprobada.

Typsa enpresak egin zuen azterlana eta hiri integrazioari erantzuteko bost alternatiba aurkeztu zituen haren txostenean: bi lurperatzeari zegozkionak, bi estaltzeari erantzungo ziona eta azkeneko alternatiba bat pantaila bidez egiten zena.

El estudio fue realizado por la empresa Typsa y en su informé presentó cinco alternativas para dar respuesta a la integración urbana: dos correspondientes al soterramiento, dos a la cubrición y una última alternativa mediante colocación de pantallas.

Alternatiba horiek eskuan, ETSk eta Udal Gobernuak bilera bat egin zuten bizilagunekin eta bertan adierazi zieten Morlans-Anoeta arteko zatian pantailak jarriko zituztela. Egun estalketa ez zelako egingarria.

Con dichas alternativas como punto de partida, ETS y el Gobierno Municipal mantuvieron una reunión con vecinas y vecinos, en la que les informaron de la colocación de pantallas en el tramo comprendido entre Morlans-Anoeta, ya que, en la actualidad, la cubrición no era una opción factible.

Anoeta eta Interkanbiadorearen arteko zatiari dagokionean, aukera egon zitekeela etorkizuneko interkanbiadorearen proiektuan estalketa sartzeko.

En cuanto al tramo entre Anoeta y el intercambiador, afirmaron que la cubrición de ese tramo podría incluirse en el proyecto del futuro intercambiador.

Gerora, Susana Garcia Chuecak, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak berak, bizilagunei bidalitako gutun batean gauza bera zioen.

Posteriormente, Susana Garcia Chueca, consejera de Movilidad Sostenible, en una carta dirigida a vecinas y vecinos, decía lo mismo.

Ezarri nahi dituzten pantailei dagokionean, dakigunez, ETSk Tecnalia enpresarekin elkarlanean garatzen ari diren pantaila akustiko batzuk jartzea da proposamena.

En lo que respecta a las pantallas que se pretenden implantar, se sabe que la propuesta es la colocación de unas pantallas acústicas que ETS está desarrollando en colaboración con Tecnalia.

Pantaila horiek, oraindik prototipo fasean daude eta ez dira inon ezarri, “minibarrera”

Estas pantallas, aún en fase de prototipo, no se han instalado en ningún lugar todavía: se

izena dute, gurpilen parean jartzeko dira eta metro inguruko altuera dute.

denominan "minibarrera", están destinadas a situarse a la altura de las ruedas de los trenes y tienen una altura aproximada de un metro.

Aditzera eman dute, “minibarrera” edo hesi hauek ez dutela bermatzen zarata desagertzea. Ziurtatzen dena zarataren parte bat kenduko dutela da, hau da, haien eraginkortasuna zalantzan jartzen da. Are gehiago, “minibarrera” hauek ez dute hiri-integrazioa konpontzen, finean hori ere da bizilagunek aspalditik eskatzen dutena.

Según indican, estas "minibarreras" o vallas no garantizan la eliminación total del ruido. Lo que garantiza es la eliminación parcial del ruido; es decir, su eficacia queda cuestionada. Además, estas "minibarreras" no solucionan la integración urbana, que es lo que demandan las vecinas y los vecinos desde hace mucho tiempo.

Hau guztia jakinik, Amara Berriko auzo-elkarteak bere kezka eta proposamenak luzatu zizkien legebiltzarreko alderdi guztiei, eta horren ondorioz, auzotarrek azalpen sakona eskaini zuten maiatzaren 6ko Legebiltzarreko Mugikortasun Batzordeko agerraldian.

Conscientes de todo ello, la asociación de vecinos de Amara Berri trasladó sus inquietudes y propuestas a todos los partidos del Parlamento Vasco, lo que dio lugar a una exposición muy detallada por estos en la comparecencia realizada en la Comisión de Movilidad del Parlamento el pasado 6 de mayo.

Horiek horrela, apirilaren 27an, Alkate jaunari mezu bat bidali zioten Amara Berriko bizilagunek haien kezka eta proposamenak azaltzeko. Mezuaren erantzunik jaso ez eta beste mezu bat bidali zioten maiatzaren 25ean, eta oraindik, ekimen hau batzordeetara aurkeztu genuenerako, Alkateak ez zuen erantzunik eman.

Ante esta situación, el pasado 27 de abril, los vecinos de Amara Berri enviaron al Sr. alcalde un escrito exponiendo sus inquietudes y propuestas. No habiendo recibido respuesta al mensaje, el 25 de mayo enviaron otro escrito y, a fecha de presentación de esta iniciativa a las Comisiones, el alcalde no había dado una respuesta.

2022an, Alkate jaunak berak, aukera on gisa eta bideragarri ikusten zuen Morlans-Anoeta arteko lurperatzea, are gehiago, trenen trafikoa mozten ez bazen ere, estaltzea bideragarria zela.

En 2022, el propio Sr. alcalde consideraba que el soterramiento entre Morlans-Anoeta era una buena opción y viable; y la opción de cubrición de las vías, sin interrumpir el tráfico ferroviario, era también considerada una opción viable.

Baina orain, Susana Garcia Chuecak, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak, bizilagunei helarazitako gutun batean honakoa adierazi du: ez Eusko Jaurlaritzak ez Udal Gobernuak ez dute egingarri ikusten estaltzea eta lurperatzea.

Pero ahora, como señala la consejera de Movilidad Sostenible, Susana García Chueca, en una carta dirigida a los vecinos, ni el Gobierno Vasco ni el Gobierno Municipal ven factible ni el cubrimiento ni el soterramiento de las vías.

Honi buruz galdetu genuen ekainaren 16ko batzordeetan, eta gure harridurarako, Udal Gobernuaren adierazpenak izan ziren ulertzen dutela bizilagunek daukaten arazoa eta larria dela, baina inoiz ez dutela esan planteatutako alternatibak ezinezkoak zirenik. Are gehiago, Udalak irtenbide bat bilatzeko konpromisoa hartu zuela, pantaila akustikoak jartzeko proposamena onartzeko eskatzearekin batera, pantailen irtenbidea behin-behineko arazoa zela eta Udala bera ari zela ETSrekin bestelako irtenbide integral bat bilatzen.

Preguntamos al respecto en las comisiones del 16 de junio, y para nuestra sorpresa, las declaraciones del Gobierno Municipal fueron que entienden la gravedad del problema que sufren los vecinos de la zona, pero que nunca han dicho que las alternativas planteadas fueran imposibles de realizar. Es más, al tiempo que solicitaba la aprobación de la propuesta de colocación de pantallas acústicas, el Ayuntamiento se comprometió a buscar una solución, afirmando que la colocación de las pantallas era una solución provisional, y que el propio Ayuntamiento estaba buscando otra solución integral junto con ETS.

Argi dugu, hiri-integraziorako soluzioa ez dela egun planteatzen duten alternatibarekin betetzen eta bizilagunek soluzio integral bat behar dutela egungo arazoari irtenbide bat bilatzeko, hiri-integrazioa bermatzeko eta zarata guztiz kenduko dela ziurtatzeko.

Somos conscientes de que, con la alternativa que plantean en la actualidad el problema de la integración urbana no queda solucionado, y que los vecinos necesitan una solución integral para encontrar una solución al problema actual: garantizar la integración urbana y asegurar la eliminación total del ruido.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Amara Berriko bizilagunekin batera prozesu parte-hartzaile bat abiatu dezala trenbidearen estaldura diseinatzeko eta inplementatzeko Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola eremuetan.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola eremuko topoa estaltzeko ETSrekin behar diren kudeaketak bideratu ditzala eta erraztasunak emateko konpromisoa

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a iniciar un proceso participativo con los vecinos de Amara Berri para el diseño y la implementación de un proyecto de cubrición de la vía férrea en los tramos de Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar las gestiones que resulten necesarias con ETS y a que se comprometa a establecer facilidades para la cubrición del topo en los tramos Morlans-

hartu dezala.

Donostian, 2025eko ekainaren 20an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Anoeta y Anoeta-Loiola.

San Sebastián, 20 de junio de 2025

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Juan Marrero Vizcaino jaunak eta Olatz Yarza Garagorri andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe López de Samaniego, Dª Vanessa Vélez de Pablos, D.ª Arantza González García, D. Juan Marrero Vizcaino y Dª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**PSE-EE TALDEAK 8. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO PSE-EE AL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – PSE- EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 - (7) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 3 - (2) – ELKARREKIN DONOSTIA, (1) EAJ/PNV (PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA:17 - (7) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 3 – (2) ELKARREKIN DONOSTIA, (1) EAJ/PNV (POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA)**

**EAJ/PNV ETA EH BILDU TALDEEK 8. GAIARI AURKEZTUTAKO ERDIBIDEKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA TRANSACCIONADA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV, EH BILDU AL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK:5 – PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EAJ/PNV TALDEAK 8. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETA / LA ENMIENDA Nº2 PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ / PNV AL ASUNTO Nº 8 (EMNIENDA DE ADICIÓN)**

**KENDUA**

**RETIRADA**

**8. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO Nº 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK:5 -PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hogeita seian izandako osoko bilera ohikoan, EH BILDU taldeak Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola tarteetako trenbidea estaltzeaz aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuen, gehiengoz. Onartutako mozioak zuzenketa transakzionatu bat dauka eginda, EAJ/PNV eta

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintiséis de junio de dos mil veinticinco, aprobó, por mayoría, la Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU relativa a la cubrición de la vía férrea en los tramos Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola, que incorpora una enmienda transaccionada

EH BILDU taldeek aurkeztutako zuzenketa, xedapen-zatiaren 1. puntua aldatzeko. Hala hauxe da azkenean onartutako testuak hitzez hitz dioena:

“Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola zatietan trenbidea estaltzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Bada duela hamarkada bat baino gehiago, Amara Berriko bizilagunak, Udalari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen ari zaizkiela Morlans eta Loiola arteko topoko trenbidea lurperatzeko, trenek sortzen dituzten zaratak eta bibrazioak murrizteko.

Eskaera horri erantzunez, 2022an ETSk lizitaziora atera zuen trenbidearen hiriintegraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzua 130.000 euroko aurrekontuarekin BEZik gabe.

Typsak egindako txosten edo azterlan horretan, hiri-integraziorako 3 alternatiba eskaintzen ziren, horien artean estalketa.

Horri erantzunez, maiatzaren 6an, Amara Berriko 3 bizilagunek agerraldia egin zuten Legebiltzarrean, trenbidearekin pairatzen dituzten zarata-arazoak azaltzeko.

Arazo horri erantzuteko, ETSk pantaila batzuk jartzea proposatu du. Baina, pantaila horiek ez

aprobada, presentada por los Grupos EAJ/PNV y EH BILDU, de sustitución del punto n.º1 de la parte dispositiva, siendo el texto aprobado literalmente el siguiente:

“Juan Karlos Izagirre Hortelano, portavoz del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, relativa a la cubrición de las vías del topo en los tramos Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos y vecinas de Amara Berri llevan más de una década pidiendo al Ayuntamiento y al Gobierno Vasco que soterren las vías del Topo en el tramo que va de Morlans a Loiola, a fin de reducir los ruidos y vibraciones que genera la circulación de trenes.

En respuesta a dicha demanda, en 2022, ETS licitó el servicio de redacción del estudio de alternativas de integración urbana del ferrocarril, con un presupuesto de 130.000 euros, sin IVA.

En este informe o estudio realizado por Typsa se ofrecían 3 alternativas de integración urbana, entre ellas la cubrición.

En este contexto, el pasado 6 de mayo, 3 vecinos de Amara Berri comparecieron en el Parlamento Vasco para explicar los problemas de ruido que sufren a causa del tráfico ferroviario.

A modo de respuesta a este problema, ETS propone la colocación de una serie de

dute konpontzen trenbidearen hiri-integrazioa, eta ez dute bermatzen zarata desagertzea. Typsak egindako "Morlans eta Anoeta arteko trenbidearen hiriintegraziorako alternatiben azterlanean" argi geratu zen, pantailetatik haratago, beste aukera batzuk ere badaudela, hala nola topoa estaltzearena.

Estaldura horrek, zarata-arazoak konpontzeaz gain, metroaren hiri-integrazioa ere konponduko luke; beraz, konponbide integrala da, auzotarren babesa duena eta herritar guztiengan modu positiboan eragingo lukeena, espazio publikoa lortzen delako beste erabilera batzuetarako.

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eta ETSri eskatzen die konponbide integrala eman diezaiotela Morlans – Anoeta tartean trenbideko garraioak sortzen dien inpaktuaren arazoari, trenbidea estaliz eta hiri integrazioa hobetuz bizilagunentzat ingurune osasungarria eta bizigarria bermatzeko”. ====================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, **Egiaztagiri** hau egin,

pantallas. Sin embargo, estas pantallas no resuelven la integración urbana del ferrocarril ni garantizan la desaparición del ruido. En el estudio de alternativas realizado por Typsa para la integración urbana del ferrocarril en el tramo Morlans-Anoeta quedó patente que, más allá de la instalación de pantallas, existen otras alternativas, como puede ser el cubrimiento de las vías.

Dicha cubrición, además de solucionar los problemas de ruido, facilitaría también la integración urbana del topo, por lo que se trata de una solución integral, que cuenta con el respaldo del vecindario y que incidiría positivamente al conjunto de la ciudadanía, ya que se obtiene un espacio público para otros usos.

Es por todo ello por lo que presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco y a ETS a dar una solución integral al problema del impacto del transporte ferroviario en el tramo Morlans – Anoeta, cubriendo las vías y mejorando la integración urbana para garantizar un entorno saludable y habitable para los vecinos y vecinas.”. ====================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta

izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, sinaduraren egunean.

Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de firma.

ALKATEAK O. E. /

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso

**10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO Nº 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 21 - (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA:21 - (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

**HALA ESKATU DUTENEZ, 6. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 6:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV,(5) PSE-EE,**
**ABSTENTZIOAK: 2 - PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA:13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE,**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:18 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2- PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2- PP.**

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**9. Mozio Arrunta, PP Taldeak aurkeztua, portuko arrapalak eta eskailerak garbitzeko itsasora isurtzen den sodio hipokloritoari buruzkoa.**

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostiako portuko arrapalak eta eskailerak garbitzeko itsasora isurtzen diren dozenaka litro lixibari buruzkoa, Udalbatzan eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2023ko irailean, Eguzki talde ekologistaren bidez, jakin jakin genuen sarritan sodio hipoklorito (lixiba) litro ugari isurtzen ari direla

**9. Moción Ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el vertido de decenas de litros de lejía que se vierten al mar para limpiar las rampas y escaleras del Puerto.**

“Borja Corominas Fisas, concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, para su debate en el Pleno, sobre el vertido de decenas de litros de lejía que se vierten al mar para limpiar las rampas y escaleras del puerto de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

En el mes de septiembre de 2023 nos enteramos a través del colectivo ecologista Eguzki, de que frecuentemente se vertían decenas de litros de

Donostiako portuko eskailerak eta arrapala garbitzeko. Horren ondorioz, Mozio Arrunt bat aurkeztu genuen, hain zuzen ere egoera hori salatzeko.

Joan den maiatzean portuko eskailerak eta arrapala berriro ere produktu horrekin garbitu zirenez, Mozio Arrunt hau aurkezten dugu berriro ere.

Kasu honetan, Donostiako kirol-portuaren sustatzailea Euskadiko Kirol Portuak (EKP) erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikita dagoena.

Dirudienez, EKPko langileek sodio hipokloritoa erabiltzen dute Donostiako portuko eskaileretako eta arrapalako goroldioa kentzeko, era horretan, portuan ibiltzen diren arraunlariek eta portuko dartsenetako erabiltzaileek irrist ez egiteko.

Goroldioa kentzeko beste metodo batzuk daudela uste dugu, esaterako presio handiko ur-zorrotadak. Ur-zorrotada bidezko metodo hori erabiliz gero, lixibak itsas faunari eta ingurumenari eragiten dien kalte handia saihestuko genuke.

Horiek horrela direla, hauxe da Alderdi Popularraren udal taldeak dakarren MOZIO ARRUNTA:

1. Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari Euskadi Kirol Portuak (EKP) erakunde publikoko zuzendariari

hipoclorito de sodio (lejía), para limpiar las escaleras y la rampa del puerto de San Sebastián, como consecuencia de ello, presentamos una Moción Ordinaria, denunciándolo.

Como consecuencia de que, en el pasado mes de mayo, nuevamente se ha realizado la limpieza de las escaleras y la rampa del puerto con este producto, presentamos nuevamente la presente Moción Ordinaria.

En este caso, el promotor del puerto deportivo de San Sebastián es la entidad pública Euskadiko Kirol Protuak, (EKP), adscrito al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Al parecer los empleados de EKP, usan hipoclorito de sodio para eliminar el musgo de las escaleras y la rampa del puerto de San Sebastián, para evitar que los remeros y usuarios de las dársenas del puerto no resbalen.

Entendemos que, para la eliminación del musgo, habrá otras formas, como puede ser los chorros de agua a presión. Con esta acción eliminaríamos el gran perjuicio que la lejía hace a la fauna marina y al medio ambiental.

Es por ello por lo que el Grupo Municipal del Partido Popular presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco para que comunique al director/a del ente

jakinaraz diezaiola, Donostiako portuko eskailerak eta arrapala garbitzeko orduan, EKPko langileek sodio hipokloritoa (lixiba) erabil ez dezatela.

2. Donostiako Udalbatzak Euskadiko Kirol Portuak (EKP) erakunde publikoko zuzendariari eskatzen dio langileek Donostiako portuko eskaileretako eta arrapalako goroldioa ezabatzeko orduan, sodio hipokloritoa erabil ez dezatela.

3. Donostiako Udalbatzak Euskadiko Kirol Portuak (EKP) erakunde publikoko zuzendariari eskatzen dio langileek Donostiako portuko eskaileretako eta arrapalako goroldioa ezabatzeko orduan, bestelako metodo batzuk erabiltzeko aukerak azter daitezela.

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea”.

público Euskadi Kirol Portuak, (EKP), para que los operarios de esta entidad dejen de verter hipoclorito de sodio (lejía), a la hora de limpiar las escaleras y la rampa del puerto de San Sebastián?

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al director/a del ente público Euskadiko Kirol Portuak, (EKP), a que sus operarios a la hora de eliminar el musgo de las escaleras y rampa del puerto de San Sebastián no usen hipoclorito de sodio?

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al director/a del ente público Euskadiko Kirol Portuak (EKP), valoren otras formas que no sea la utilización de hipoclorito de sodio para la eliminación del musgo de las escaleras y rampa del puerto de San Sebastián.

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular ”.

Eztabaida hasita, Jorge Mota Iglesias jaunak, Iñigo García Villanueva jaunak, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Victor Lasa Briz jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Jorge Mota Iglesias, D. Iñigo García Villanueva, D. Markel Ormazabal Gaztañaga y D. Victor Lasa Briz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. GAIAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº1 DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 - (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV,(5) PSE-EE,**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 - (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE,**
**ABSTENCIONES: 0.**

**9. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº2 DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 - (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV,(5) PSE-EE,**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 - (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA:13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE,**
**ABSTENCIONES: 0.**

**9. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº3 DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol Mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, San Bartolome eremuaren etorkizunari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udaleko talde mistoaren bozeramaile Victor Lasak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean San Bartolome eremuaren etorkizunaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

San Bartolome mendi-hegala Donostiaren erdi-erdian dago, eta hiriaren erdigunean urbanizatu gabe den gune apurretako bat da. Orain dela gutxi, lurpeko aparkaleku eta guzti izan behar zuen merkataritza-gunea eraikitzeko proiektua –herritarren aurkako jarrera handia zuena– bertan behera utzi ondoren, aukera historiko bat daukagu leku hori hiri-parke handi, berde, publiko eta irisgarri bihurtzeko.

Aukera hori ez da auzotarren eskaria bakarrik; premia larria ere bai: osasun publikoaren, klima-aldaketara egokitzearen, justizia espazialaren eta bizi-kalitatearen aldetik. Izan ere, XXI. mendeko hiriek ezin dute biztanleen ongizatea eta hiri-ingurunea hondatuz handitzen jarraitu. Donostiak finkatu egin behar du duen gune libre sarea, batez ere dentsitate handiko urbanizazio eremuetan (erdialdean, adibidez, berdegune falta egiturazkoa baita hor).

Era berean, San Bartolomen parkea egitearen alde egiteak mezu argi bat bidaliko lieke herritarrei: Udalak denen hobe-beharra

**II.2.1. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al futuro del ámbito de San Bartolomé.**

“Dr. Víctor Lasa, Portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de interpelación realizada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, relativa al futuro del ámbito de San Bartolomé.

JUSTIFICACIÓN

La ladera de San Bartolomé, en pleno corazón de Donostia, representa uno de los escasos espacios sin urbanizar en el centro consolidado de la ciudad. Tras la reciente cancelación del proyecto de construcción de un centro comercial con aparcamiento subterráneo, ampliamente contestado por la ciudadanía, se abre una oportunidad histórica para reconvertir este espacio en un gran parque urbano, verde, público y accesible.

Esta posibilidad no es únicamente una demanda vecinal, sino también una necesidad urgente en términos de salud pública, adaptación climática, justicia espacial y calidad de vida. Las ciudades del siglo XXI no pueden seguir creciendo a costa del bienestar de sus habitantes ni del deterioro del entorno urbano. Donostia necesita consolidar su red de espacios libres, especialmente en aquellas zonas densamente urbanizadas como el Centro, donde la falta de zonas verdes es estructural.

Asimismo, apostar por un parque en San Bartolomé enviaría un mensaje claro a la ciudadanía: que el Ayuntamiento prioriza el

lehenesten du, eta eutsi egiten dio hiri-eredu jasangarri, inklusibo eta erresilientea izateko konpromisoari.

Horiek horrela direla, hauxe da gure:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio adieraz dezala Udalak baduela borondate politikoa San Bartolome eremua hiri-parke bihurtzeko, hiriko erdiguneko erabilera publikoko gune libreen sarean sartuta.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren ekiteko indarrean den hirigintza-plangintza aldatzeko izapideei, eta hizpide dugun eremuari esleitutako merkataritza- eta bide-erabilerak kendu eta gune libreen sistema orokor sailkatzeko lursaila.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio azterlan tekniko bat enkargatzeko eremu hori berriz ere natural bihurtzeko; biodibertsitate, hiri-garapen jasangarri, irisgarritasun unibertsal eta belaunaldi-arteko erabilera irizpideak kontuan izanda natural bihurtze horretan.

4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren jartzeko abian herritarrek parte hartzeko prozesu benetako eta lotesle bat; ideia-lehiaketak, elkarlanean diseinatzeko tailerrak eta horrelako formulak erabiliz definitzeko bihar-etziko parke proiektua.

interés general, y que da continuidad a su compromiso con un modelo de ciudad sostenible, inclusivo y resiliente.

Por todo ello, proponemos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a manifestar la voluntad política del Ayuntamiento de destinar el ámbito de San Bartolomé a parque urbano, integrado en la red de espacios libres de uso público del centro de la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a iniciar, lo antes posible, los trámites de modificación del planeamiento urbanístico vigente, con el objetivo de desclasificar los usos comerciales y viarios asignados al ámbito, y reclasificar el terreno como sistema general de espacios libres.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a encargar un estudio técnico de renaturalización, incorporando criterios de biodiversidad, desarrollo urbano sostenible, accesibilidad universal y usos intergeneracionales.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a poner en marcha, lo antes posible, un proceso de participación ciudadana real y vinculante, mediante fórmulas como concursos de ideas o talleres de diseño colaborativo, para definir el proyecto del futuro parque.

5. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio kontu-sail espezifiko bat gordetzeko Udalaren hurrengo aurrekontuetan, proiektua idazteko eta egin behar diren obrak egiteko.

6. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazteko erabaki hau, proiektua garatzeko laguntza teknikoa eta finantzarioa ematea eskatzeko haiei.

Donostia, 2025eko ekainaren 18a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a reservar una partida específica en los próximos presupuestos municipales destinada a la redacción del proyecto y a la ejecución de las obras necesarias.

6. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a dar traslado de este acuerdo al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el fin de recabar su colaboración técnica y financiera en el desarrollo del proyecto.

Donostia, a 18 de Junio de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Victor Lasa Briz jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Alkate-Udalburuak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Victor Lasa Briz, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª. Ane Oyarbide Ochoa, D. Ricardo Burutaran Ferré y el Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 2 – PP.

MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 2 – PP.

1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.

1. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.

1. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**1. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.**

**1. KONTROL MOZIOAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 6 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 10 - (8) EH BILDU, (2) PP.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, garraio publikoaren %50eko deskontuari buruzkoa.**

**II.2.2. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con el 50% del descuento del transporte público.**

“Arantza González García Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, garraio publikoaren %50eko deskontuari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hilaren 16an, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzi ordezkari Yarza andreari egindako interpelazioa dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) adierazi genuen bezala, uztailaren 1etik aurrera, garraio publikoan oro har egiten den %50eko deskontua aldatu egingo da. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA) 14 urtera arteko adingabeek (horiek barne) garraio publikoan doan bidaiatzea onartu zuen apirilean. Gainera, 25 urtetik beherakoek %50eko deskontua izaten jarraituko dute urte amaierara arte, eta garraio publikoaren gainerako erabiltzaileek txartel arruntaren prezioaren %40ko hobaria izango dute.

Hala ere, urtarrilaren 28ko 1/2025 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, Mugikortasun Ministerioak 15 urtetik beherakoentzako doakotasuna finantzatuko du, bai eta %50eko deskontua gazteentzako abonuetan. Gainerako bidai-txarteletan –turistikoak, joanekoak eta joan-etorrikoak izan ezik–, gutxienez %40ko deskontua sustatzen da, eta horren %20 batera finantzatu beharko da.

Hau da, gainerako txartelei %50eko deskontua

“Arantza González García, concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL derivada de la interpelación a la concejala delegada de Movilidad y Transporte Sostenible, Sra. Yarza, en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del pasado día 16, en relación con el 50% del descuento del transporte público

JUSTIFICACIÓN

Como ya manifestamos en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, a partir del 1 de julio, el descuento del 50% generalizado en el transporte público va a ser modificado. De esta manera, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG) aprobó en el mes de abril la gratuidad de las y los menores hasta los 14 años (estos incluidos). Además, las personas menores de hasta 25 años seguirán disfrutando de descuentos del 50% hasta que finalice el año, mientras que el resto de las personas usuarias del transporte público tendrán bonificaciones del 40% sobre el precio del billete ordinario.

No obstante, según el RDL 1/2025, de 28 de enero, en cuanto al transporte urbano y metropolitano de titularidad autonómica y local, el Ministerio de Movilidad financiará su gratuidad para los menores de 15 años y un descuento del 50% para abonos joven. En el resto de los títulos -salvo los turísticos, los sencillos y los de ida y vuelta- se promueve un descuento de, al menos, el 40%, que deberá ser cofinanciado al 20%.

Es decir, que se podría seguir aplicando el

aplikatzen jarrai liteke, baldin eta tokiko operadoreek %20ko baterako finantzaketa egiten badute. Baterako finantzaketa hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean egin liteke.

Zalantzarik gabe, 2022an %50eko deskontua indarrean jarri zenetik, bidaia- eta erabiltzaile-kopuruak nabarmen egin du gora. Izan ere, 2023an, bidaiak %15,69 areagotu ziren Dbusen, eta %20,05 Dbizin. 2024ko datuek marka guztiak hautsi zituzten: 32 milioi bidaia Dbusen, %8,47 gehiago; eta 1,3 milioi bidaia Dbizin, %37,42 gehiago.

Garraio publikoan egiten diren joan-etorri horiek oso eragin positiboa dute $CO^2$ isurien murrizketan eta ibilgailu pribatuek (gehienetan pertsona bakar bat joaten da horietan) hiriko trafikoan eragiten dituzten auto-ilara eta -pilaketetan.

Era berean, hiri-garraio publikoaren tarifen aldaketa izapidetzen ari da, eta espedientean dagoen txosten ekonomikoaren arabera, batez besteko igoera %5,51koa izango da. Horrek esan nahi du, kontuan hartu behar dela, igoera horrez gain, egungo deskontua desagertuko dela, eta horrek eragin ekonomiko handia izango duela familia askorentzat.

Gainera, ezin dugu ahaztu garraio publikoaren prezioaren igoerak emakumeongan izango duen eragin negatiboa; izan ere, emakumeok erabiltzen dugu gehien garraio publikoa, emakumeok ditugu diru-sarrera apalenak eta beraz, emakumeok dugu ibilgailu pribatu bat izateko aukera gutxien.

descuento del 50% al resto de títulos, siempre que se cofinancie un 20% por parte de los operadores locales, lo que puede ser cofinanciado entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco.

Está fuera de toda duda el importante incremento tanto del número de viajes como de personas usuarias que el descuento del 50% ha supuesto desde su entrada en vigor en 2022. De hecho, en 2023 hubo un incremento de un 15,69% de viajes en Dbus y de un 20,05% en Dbizi. Los datos de 2024 han batido todos los récords: 32 millones de viajes de Dbus, un 8,47% más; y 1,3 en Dbizi, un 37,42% más.

Estos desplazamientos en transporte público tienen un impacto muy positivo en la reducción de las emisiones de CO2 y en los atascos y embotellamientos que los vehículos privados (ocupados mayoritariamente por una sola persona) provocan en el tráfico por la ciudad.

Asimismo, está en tramitación la modificación de las tarifas del transporte público urbano, y según el informe económico que obra en el expediente, la subida promedio será de un 5,51%. Lo que supone que, a esa subida, habrá que añadirle la desaparición del descuento actual, lo que va a tener un importante impacto económico para muchas familias.

Además, no podemos ignorar que el impacto negativo que la subida del precio del transporte público tendrá en las mujeres, dado que son quienes mayoritariamente lo utilizan, quienes tiene menores ingresos y menor acceso a vehículos privados.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen egungo deskontuek 2 milioiko gastua sortzen dutela, eta ezinezkoa dela horiei eustea. Hala ere, Espainiako Gobernuak deskontu handiak finantzatzen jarraituko du, eta, gainera, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak bai Eusko Jaurlaritzak batera finantzatu ditzakete, datu guztiek erakusten duten bezala, garraio publikoa sustatzeko neurri eraginkorrenetako bat izan baitira deskontuak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barne, eska dezala garraio publikoan egun aplikatzen den %50eko deskontuari eusteko, eta Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eska diezaiela, urtarrilaren 28ko 1/2025 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen duen %20ko baterako finantzaketa egin dezatela.

Donostia, 2025eko ekainaren 18a

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udaleko talde mistoko zinegotzia".

En la comisión, la concejala delegada manifestó que los descuentos actuales suponen 2 millones de euros, y que no sería posible continuar con ellos. Sin embargo, el Gobierno de España va a seguir financiando importantes descuentos, y además tanto la Diputación de Gipuzkoa como el propio Gobierno Vasco pueden implicarse en cofinanciarlos, dado que ha sido una de las medidas más eficaces de fomento del transporte público, tal y como demuestran todos los datos.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a solicitar en el seno de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa el mantenimiento del descuento actual del 50% en el transporte público, y a solicitar a la Diputación Foral y al Gobierno Vasco la cofinanciación del 20% que establece el RDL 1/2025, de 28 de enero.

Donostia, a 18 de junio de 2025

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Olatz Yarza Garagorri andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.3. Kontrol Mozioa, PP taldeak aurkeztua, Ametzagainako parkea eta begiralekuari buruzkoa.**

“Udal Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, Ametzagaina parkeari eta bertako begiralekuari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioa dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondo auzoan, Donostiako beste auzo askotan bezala, gabezia handiak daude hiri-mantentzean.

Hala salatzen dute etengabe Donostiako auzoetako herritarrek.

Intxaurrondon, deigarria da Ametzagaina parkea eta bertako begiratokia zein nolako egoeran dauden.

Horregatik, honako hau aurkezten dugu:

**II.2.3. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre el parque y el mirador de Ametzagaina.**

“Borja Corominas Fisas, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre el parque y el mirador de Ametzagaina.

JUSTIFICACIÓN

El barrio de Intxaurrondo, como muchos otros en San Sebastián, muestra enormes carencias en materia de mantenimiento urbano.

Los ciudadanos de los diferentes barrios de San Sebastián así lo denuncian continuamente.

En el caso de Intxaurrondo, es llamativa la situación en la que se encuentra el Parque de Ametzagiana y el Mirador.

Por todo ello, planteamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio Intxaurrondoko hiri-eremua berroneratzeko plan bat egin dezala. Plan horrek, besteak beste, honako hauek hartuko ditu barnean:

    - Inausketa-plan bat, urteko kronograma batekin.
    - Argiteria publikoko plan bat, non berehalako jarduketak zehazten diren.
    - Auzoko bide-azpiegitura, espaloiak eta plazak hobetzeko plan bat.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Ametzagaina parkea birgaitzeko plan bat egin dezala, interes berezia jarriz egun arreta eskatzen duten eremu eta paseatzeko eremuetan, esaterako, Ametzagaina parkeko begiratokian, gaur egun, tamalez, erabat utzita baitago.

Donostia, 2025eko ekainaren 20a

Borja Corominas Fisas Udal Talde Popularreko zinegotzia”.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a elaborar un plan de regeneración del área urbana de Intxaurrondo que comprenda, entre otros:

    - Un plan de poda con un cronograma anual.
    - Un plan de alumbrado público que incluya una acción inmediata.
    - Un plan de mejora de la infraestructura viaria, aceras y plazas del barrio.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a elaborar un plan de rehabilitación del parque de Ametzagaina, con especial interés en las zonas y áreas de paseo como el mirador del parque de Ametzagaina, actualmente en un lamentable estado de abandono.

En San Sebastián, a 20 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Vanessa Velez de Pablos andreak, Victor Lasa Briz jaunak, Carlos Garcia Hernandez jaunak eta Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Vanessa Vélez de Pablos, D. Victor Lasa Briz, D. Carlos García Hernández y D. Markel Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE**

**ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (7) EH BILDU, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 - (2) ELKARREKIN DONOSTIA, (1) EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (7) EH BILDU, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 - (2) ELKARREKIN DONOSTIA, (1) EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUTA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 - EH BILDU, HORIETAKO BAT PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 8 - EH BILDU, UNO DE ELLOS POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.4. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Zubimusu parkeari buruzkoa.**

“Udal Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo

**II.2.4. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre el parque Zubimusu.**

“Borja Corominas Fisas, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del

Araudiaren 98. artikulua oinarri, Zubimusu parkeari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Ogasun Batzordean aurkeztutako interpelazioa dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Badira hilabete batzuk, Zubimusu parkean, Ondarretako ertzain-etxearen ondoan, pertsona talde bat mantentze gela batean bizi dela, prekarietate-egoera jasanezinean.

Gela horretako ate bortxatuaren ondoan, era guztietako gauzak dauzkate gordeta, besteak beste, butano-botila bat, eta horrek arrisku handia sortzen du bai pertsona horientzat, bai bizilagunentzat eta parkeko erabiltzaileentzat ere.

Gainera, parkearen kontserbazio- eta mantentze-egoera negargarria da.

Horregatik, honako hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio bizkortu ditzala izapideak, pertsona horiek toki horretatik irtenarazteko.
2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio pertsona horiek bizi diren gelako atean pilatzen diren tresna guztiak ken ditzala.
3. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Zubimusu parkean jarduketa integral bat egin dezala, parke hori erabat berroneratzeko.

Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Hacienda sobre el parque Zubimusu.

JUSTIFICACIÓN

En el parque de Zubimusu, junto a la comisaría de la Ertzainta de Ondarreta, viven dese hace meses en un cuarto de mantenimiento, un grupo de personas en un estado de precariedad insoportable.

Junto a la puerta forzada del cuarto donde viven, almacenan todo tipo de enseres, incluida una bombona de butano, lo que podría suponer un riesgo considerable para ellos mismos y para vecinos y usuarios del parque.

Además, el estado de conservación y mantenimiento del parque es deplorable.

Por todo ello, planteamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a acelerar los trámites para desalojar a esas personas de ese lugar
2. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a retirar todos los enseres que se acumulan a la puerta del cuarto donde viven esas personas.
3. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a realizar una actuación integral en el parque Zubimusu para su total regeneración.

Donostia, 2024ko ekainaren 5a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularreko zinegotzia".

En San Sebastián, a 20 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Vanessa Velez de Pablos andreak, Victor Lasa Briz jaunak, Izar Hernando Ibero andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Vanessa Vélez de Pablos, D. Victor Lasa Briz, D.ª Izar Hernando Ibero y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Easo kaleko obrei eta obrak hasi aurretik kalean zehar pasatzen ziren eta geltokia zuten autobus lineen ibilbidea itzultzeari buruzkoa.**

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Easo kaleko obrei buruz eta obrak hasi baino lehen bertatik igarotzen ziren eta bertan geralekua zuten autobus-lineen ibilbidea

**II.2.5. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre las obras en la calle Easo y la restitución del trazado de las líneas de autobús que pasaban y tenían parada a lo largo de la calle antes del comienzo de las obras.**

"Vanesa Vélez De Pablos, concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre las obras en la calle

lehengoratzeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak esan zuen Easo kaleko obrak uztailaren hasieran amaituta egongo direla, eta Xabier Zubiri plazakoak eta Askatasunaren etorbidera arteko espaloiko obrak abuztuaren erdialderako amaituta egongo direla.

Era berean, esan zuen konpromisoa hartu zutela Amarako bizilagunak Easo kalera autobusez iritsi ahal izateko, eta horretarako, aztertzen ari direla zein linea hautatuko diren berriro ere kale horretatik igarotzeko: 28 linea, 26 linea, 21 linea; hirurak, hiru horietatik bi…

Horregatik, honako hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio 28 lineak Easo kalean zuen ibilbidea eta geralekuak berrezar ditzala, ETSren obren aurretiko egoerara, hain zuzen, kuantitatiboki eta kualitatiboki zerbitzu gehien ematen duen linea delako. Amara, Miramon eta Zorroaga Gaineko bizilagunei ez ezik, Teknologia Parkeko langileei eta ospitale-guneetako langile eta pazienteei ere ematen die zerbitzua.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio kontuan har dezala Martuteneko bizilagunen iritzia, eta, egoki iritziz gero, 26 lineak Easo kalean zuen ibilbidea

Easo y la restitución del trazado de las líneas de autobús que pasaban y tenían parada a lo largo de la calle antes del comienzo de las obras.

JUSTIFICACIÓN

La Sra. Delegada de Movilidad aseguró en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos que las obras de la calle Easo estarían finalizadas a primeros de julio y las de la Plaza Xabier Zubiri y aceras hasta la Avenida de la Libertad a mediados de agosto de este mismo año.

Aseguró también que se comprometieron a que los vecinos de Amara pudieran llegar a la calle Easo en autobús y que estaba en fase de análisis qué líneas restablecerán su trazado por dicha calle: la 28, la 26, la 21, las tres, dos de ellas…

Por todo ello, planteamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. EL Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a restablecer el trazado y las paradas de la línea 28 por la calle Easo, tal y como estaba antes de la realización de las obras de ETS, por ser la línea que da más servicio cuantitativa y cualitativamente. No solo da servicio a los vecinos de Amara, Miramón y Alto de Zorroaga, sino también a los trabajadores del Parque Tecnológico y a los trabajadores y pacientes de los diferentes complejos hospitalarios.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a tener en cuenta la opinión de los vecinos de Martutene y, si así lo consideran, restablecer el trazado y las paradas de la línea

eta geralekuak berrezarri ditzala, ETSren obren aurretiko egoerara, hain zuzen.

26 por la calle Easo, tal y como estaba antes de la realización de las obras de ETS.

Donostia, 2025eko ekainaren 20a

Vanesa Vélez De Pablos
Udal Talde Popularreko zinegotzia".

En San Sebastián, a 20 de junio de 2025

Vanesa Vélez De Pablos
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Vanesa Velez de Pablos andreak, Garbiñe Lopez de Samaniego andreak eta Olatz Yarza Garagorri andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Vanesa Vélez de Pablos, D.ª Garbiñe López de Samaniego y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:10 - (8) EH BILDU, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR:10 - (8) EH BILDU, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5)**

**PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

**PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.6. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Morlans-Anoeta eta Anota-Loiola eremuko topoa estaltzeko bizilagunen parte hartzeari buruzkoa.**

8. eta 10. gaiekin batera aztertu zen.

**II.2.6. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la participación de los vecinos para cubrir el Topo a su paso entre Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola**

Se trató de manera conjunta con los asuntos nº 8 y nº 10.

---------------

**II.2.7. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Emakumeen Etxea Amara kaleko 11., 13. eta 17. zenbakietan kokatzeari buruzkoa.**

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Sandra Barrenetxea Diezek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran aztertzeko, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak ekainaren 16an izan zuen bileran Emakumeen Etxea Amara kaleko 11, 13 eta 17an jartzearen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Emakumeen Etxearen egoerak kezka eta ezinegona sortzen die nola herritarrei, hala elkarte feministei eta emakumeen elkarteei ere. Eta herritarrei eta elkarteei ez eze, baita

**II.2.7. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la ubicación de la Casa de las Mujeres en la calle Amara 11, 13 y 17.**

“Sandra Barrenetxea Díez, concejala del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la ubicación de la Casa de las Mujeres en la Calle Amara 11, 13 y 17. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del pasado 16 de junio.

JUSTIFICACIÓN

La situación de la Casa de las Mujeres de Donostia es un tema que genera preocupación y malestar, tanto entre la ciudadanía, como entre las asociaciones feministas y de mujeres.

zerbitzua baldintza desegoki eta ekipamendu publiko batean oinarrizkotzat jo behar diren baldintzak oztopatzeko moduko batzuetan eman behar duen profesional taldeari ere. Izan ere, denok dakigu leku txikia dela hura, eta ez duela ez hara joaten diren emakume guztiei arreta unibertsala eta kalitatekoa bermatzeko moduko irisgarritasunik eta baliabiderik ere. Udaleko talde politiko guztiok uste dugu beste leku bat izan behar duela, eta, hala, behin baino gehiagotan jorratu dugu batzordeetan eta osoko bilkuretan.

También entre el equipo de profesionales que debe dar servicio en unas condiciones inadecuadas e incluso obstaculizadoras de lo que debe considerarse básico en un equipamiento público. Como sabemos, el espacio es reducido, con falta de accesibilidad y de medios suficientes para asegurar una atención universal y de calidad para todas las mujeres que se acercan a la Casa. Todos los grupos políticos estamos de acuerdo en que es necesario dotarla de una nueva ubicación, por lo que el tema se ha tratado en repetidas ocasiones, tanto en comisión como en Pleno.

Horrela, 2023ko maiatzaren 3an, Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen Udalak Amara kaleko 11-13 eta 17 zenbakietako eraikinetan izango dituen lokaletan izango zela Emakumeen Etxea berria. Orobat, Gobernu honen programak konpromiso esplizitutzat jasota du "Amara kaleko egoitza berri batean birkokatzea Emakumearen Etxea".

El 3 de mayo de 2023, el Pleno del Ayuntamiento acuerda que la nueva ubicación de la Casa de las Mujeres será en los locales municipales previstos en los edificios de la calle Amara, números 11-13 y 17. Posteriormente, el programa de este Gobierno recoge como compromiso explícito “*Reubicar la Casa de la Mujer en una nueva sede en la calle Amara.*“

2024ko uztailaren 19an, txosten bat egin zuen Berdintasun Sailak, instalazioek zer ezaugarri izan behar dituen zehazteko, ekipamendu publiko horretan ematen diren zerbitzuak emateko modua izango bada; eta atera zuen ondorioa da gutxienez 1.000 $m^2$ izan behar dituela.

El 19 de julio de 2024, el Departamento de Igualdad emite informe en el que se detallan las características que deben tener las instalaciones, para da respuesta a las necesidades derivadas de los servicios que se ofrecen en este equipamiento público, concluyendo que el espacio mínimo requerido es de 1000 $m^2$.

Udal gobernuak behin baino gehiagotan erantzun du konpromisoa irmoa dela; eta batean, baita 2024ko irailean hasiko zirela obra lizitatzen ere adierazi zuen, eta 3 urte beharko zirela obra izapidetu eta egiteko.

En diversas ocasiones, se ha respondido desde el Gobierno municipal que el compromiso era firme e incluso se llegó a concretar que en Septiembre de 2024 se iba a comenzar a licitar la obra, cuya tramitación y ejecución necesitaría 3 años.

Hala ere, epe horiek atzeratu egin zirela eta, Berdintasun Kontseiluak 2024ko azaroan izan

Sin embargo, ante el retraso de estos plazos, en el Consejo de Igualdad de noviembre de

zuen bileran beste leku bat ere izan zitekeela azaldu zuten: Lizarra kaleko lokal bat. Emakumeen Etxearen elkartearen arabera, ordea, lokal horrek ez ditu Berdintasun Arloak egindako txostenean adierazitako baldintzak betetzen: zentraltasuna, irisgarritasuna eta behar adina aireztapen eta argitasun izatea, besteak beste.

Bestalde, azkeneko hilabete honetan, hartu–eman txanda bat egiten hasi da Emakumeen Etxearen Elkartea, eta adierazi du oraindik ez duela azalpenik jaso proiektuaren egoeraz –proiektua egiteko epeen atzerapenaz–, eta balio duen proposamenik ere ez duela jaso. Era berean, adierazi du gero eta erabiltzaile gehiago dela Emakumeen Etxean, eta lekua, emakumeek parte-hartzeko bidea emango duen lekua izan beharrean, oztopo bihurtzen ari dela.

Hori dela eta, orain asko ez dela, berriro aztertu dugu gaia, bai Berdintasun Kontseiluan, bai eta Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean ere. Berdintasun Kontseiluan, Ane Oyarbide ordezkariak adierazi zuen martxan jarri gabe jarraitzen duela obrak, eta ez zekiela epe zehatzik. Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Nekane Arzallus ordezkariak bai, epe bat behintzat aipatu zuen, edo eperik ez izatea, hobeto esanda.

Xehetasun-azterketa egiteko eta izapidetzeko, urtebete baino gehiago beharko da, eta hori egin behar da aurrena: proiektua idaztea kontratatu, proiektuak dakarren obra kontratatu, obra egin eta, azkenik, lekuz aldatu baino lehen. Horrenbestez, legegintzaldia amaitu aurretik ez da Emakumeen Etxea lekuz aldatuko, nahiz eta bideratuta izan litekeen.

2024 se da a conocer otra posible ubicación, un local en la calle Lizarra, que según la asociación de la Casa de las Mujeres, no cumple los requisitos que previamente se recogen en el informe emitido por el ┴rea de Igualdad, Entre otras: la centralidad, la accesibilidad, la suficiente ventilación y luminosidad, etc.

Por su parte, en este último mes, la Asociación de la Casa de las Mujeres comienza una ronda de contactos y expresa que aún no han recibido explicaciones sobre la situación de dicho proyecto, sobre la demora en plazos de realización, ni tampoco propuesta válida alternativa. Señalan a su vez, que el número de usuarias es cada vez mayor y que el propio espacio, más allá de ser facilitador de la participación de las mujeres, se está convirtiendo en sí mismo en un obstáculo.

Es por ello que el tema se ha vuelto a tratar recientemente, tanto en el Consejo de Igualdad como en la Comisión de Servicios a las Personas. En el Consejo de Igualdad la Delegada Ane Oyarbide expresó que la obra seguía sin ponerse en marcha y que desconocía plazos concretos. En la Comisión de Servicios a las Personas, la Delegada Nekane Arzallus habló, esta vez sí, de al menos un plazo, o mejor dicho, de la negación del mismo.

La realización y tramitación del estudio de detalle llevará más de un año, siendo éste previo a la contratación de la redacción del proyecto, a la contratación de la ejecución del mismo, a la propia ejecución y por último al traslado, por lo que no se trasladará antes del fin de la legislatura, aunque sí podría estar encaminada.

Gainera, ez dago argi Emakumeen Etxea han izango denik ere; Berdintasun Sailak egindako txostenean adierazitako "beharrak kabitzen diren" ikusi beharko baita horretarako.

”.Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldeak dakarren KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio legegintzaldia amaitu baino lehen zehazteko Emakumeen Etxearen leku berriaren gainean bete beharreko konpromiso berria edo konpromiso berriak.

2. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio Emakumeen Etxearen Elkartearekin biltzeko, gai horren egoera aztertzeko eta izan daitezkeen irtenbideak adosteko.

3. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio Emakumeen Etxeak dituen premientzako moduko alternatibak bilatzeko eta proposatzeko.

Donostian, 2025eko maiatzaren 20an

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Además, tampoco es claro que la Casa vaya a ser ubicada allí, puesto que es necesario ver “si tienen cabida las necesidades” expresadas en el informe de Igualdad.

Por todo ello el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a concretar el nuevo o los nuevos compromisos a cumplir antes del final de la Legislatura respecto a la nueva ubicación de la Casa de las Mujeres.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a reunirse con la Asociación de la Casa de las Mujeres para analizar la situación de esta cuestión y acordar posibles soluciones.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a buscar y proponer alternativas acordes a las necesidades de la Casa de las mujeres.

Donostian, 2025eko maiatzaren 20an

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Sandra Barrenetxea Diez andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Sandra Barrenetxea Díez, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.8. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, portuan ostalaritza-establezimendu bat sailkatzeari buruz udalak hartutako ebazpena ez betetzeari buruzkoa.**

**II.2.8. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la falta de cumplimiento de la resolución municipal adoptada sobre la clasificación de un establecimiento hostelero en el Puerto.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du, Portuko ostalaritza-establezimendu baten sailkapenaren inguruan Udalak emandako ebazpena ez betetzeari buruz, 2025eko apirilaren 10ean Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioa dela-eta.

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre la falta de cumplimiento de resolución municipal adoptada sobre clasificación de un establecimiento hostelero en el Puerto. La moción de control es consecuencia de la Interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 10 de abril de 2025.

JUSTIFIKAZIOA

2024ko maiatzaren 27an, Hirigintza Sostengaga-rriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak ebazpen bat eman zuen, Zaharrean Bizi auzo-el-karteak Kaiko pasealekuko Kantina Kaia estable-zimendua taldez aldatu izana berrikusteko aur-keztu zuen eskaera ezesten zuena.

Zinegotzi ordezkariaren ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen aipatutako auzo-elkarteak. Errekurtsoa Ad-ministrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiari bidali zi-tzaion, eta 285/2024 prozedura arrunt gisa erre-gistratu zen.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 27/5/2024, la Concejala delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda, dictó resolución por la que se desestimó la solicitud de revisión de cambio de grupo de un establecimiento Kantina Kaia en el paseo del Muelle formulada por Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartea.

Contra la referida resolución de la Concejala delegada la citada Asociación de vecinos presentó recurso Contencioso-Administrativo. El recurso fue turnado al Juzgado Contencioso Administrativo Nº 3 y quedó registrado con el número de Procedimiento Ordinario 285/2024.

Udaleko zerbitzu juridikoek aurkeztutako demandari erantzuteko izapidean, prozedura eteteko eskatu zen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

En el trámite de contestación a la demanda presentada por parte de los Servicios Jurídicos del Ayuntamiento, se solicitó la suspensión del procedimiento en base a lo dispuesto en el artículo 54.2 de la Ley 29/1998, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativo.

Hori ikusita, 2025eko urtarrilaren 10ean, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako ordezkariaren agerraldia eskatu genuen.

En vista de ello, con fecha 10 de enero de 2025, solicitamos la comparecencia de la delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda.

Udaleko Zerbitzu Juridikoek egindako txosten juridikoak, talde-aldaketa hori aztertu ondoren, ohartarazi zuen Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzak berrikusi behar zuela baimena, Parte Zaharreko eta Portuko ostalaritza-establezimenduen arteko distantziak arautzen dituen udal-araudia betetzen ez zuela eta.

El informe jurídico elaborado por los propios Servicios Jurídicos del Ayuntamiento, tras analizar el citado cambio de grupo, advertía que la autorización debía ser objeto de revisión por parte del Departamento de Urbanismo Sostenible del Ayuntamiento ya que incumple la propia normativa municipal que regula las distancias entre los diversos establecimientos de hostelería en la Parte Vieja y en el Puerto.

EH BILDU udal-taldeak eskatuta egindako agerraldian, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak iragarri zuen Udalak baliogabetu egingo zuela taldez aldatzeko lizentzia irregular hori, ostalaritza-establezimenduen arteko distantziak arautzen dituen ordenantzan xedatutakoa urratuz emana.

En la comparecencia celebrada a instancia del grupo municipal EH BILDU la delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda anunció que por parte del Ayuntamiento se anularía la licencia irregular de cambio de grupo concedida con infracción de lo dispuesto en la Ordenanza reguladora de distancias entre establecimientos de hostelería.

Horren arabera, Kantina Kaia establezimendua 1. taldekoa da eta ez 2. taldekoa. 1. taldeko establezimenduek ez dute lizentziarik alkohola emateko, eta ez dute lizentziarik sukaldea, labea edo plantxa izateko.

Así, al establecimiento “Kantina Kaia” le corresponde pertenecer al Grupo 1 y no al grupo 2. Los establecimientos del Grupo 1 no tienen licencia para expedir alcohol, ni tampoco cuenta con licencia para tener cocina, horno o plancha.

2025eko martxoaren 6an, erabaki zen eraginkortasunik gabekotzat jotzea establezimendua kudeatzen duen merkataritza-sozietateak eskatutako talde-aldaketaren jakinarazpena.

Con fecha 6 de marzo de 2025 se resuelve declarar ineficaz la comunicación de cambio de grupo solicitada por la mercantil que gestiona el establecimiento.

2025eko martxoaren 29an, UCOMeko agenteek 897/2025 Arau-hauste Akta egin zuten, establezimendu horrek alkohola ematen jarraitzen duela eta horretarako legezko gaitasunik ez duela egiaztatu ostean.

2025eko apirilaren 2an, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak neurri zuzentzaileen espedientea irekitzea erabaki zuen, eta 10 eguneko epea eman zion establezimenduari, alegazioak aurkezteko.

Igarotako epea gorabehera, aipatutako establezimenduak oraindik ez ditu udal-ebazpenak betetzen; hau da, oraindik ez da egokitu legez aitortuta duen taldera.

Hori dela eta, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio, Udalak berak ebatzitakoaren ildotik, Kaiko pasealekuan kokatuta dagoen "Kantina Kaia" establezimendua 1. taldera egokitzeko zuzenbidean bidezkoa dena agindu eta erabaki dezala, atzerapen gehiagorik gabe.

2. Era berean, udal-gobernuari eskatzen zaio unean-unean ematen diren urratsen berri eman diezaiola Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteari, espediente horretan interesduna baita.

Donostia, 2025eko ekainaren 20a

Con fecha 29 de marzo de 2025 agentes de la UCOM levantan Acta de Infracción 897/2025, al verificar que el citado establecimiento sigue expidiendo alcohol careciendo de la habilitación legal para ello.

Con fecha 2 de abril de 2025 la Delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda acuerda la apertura de expediente de medidas correctoras, otorgándole un plazo de 10 días para formular alegaciones.

No obstante el plazo transcurrido, el citado establecimiento sigue sin cumplir con las resoluciones municipales; es decir, continua sin adecuarse al grupo que tiene reconocido legalmente.

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta la gobierno municipal a que, en la línea de lo resuelto por el propio Ayuntamiento ordene y acuerde sin mayores dilaciones lo que en derecho sea procedente para que el establecimiento “Kantina Kaia”, sito en el Paseo del Muelle, ajuste su funcionamiento al grupo 1 al que pertenece.

2. Asimismo se insta al gobierno municipal a tener puntualmente informado de los pasos que se den a Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartea en su calidad de interesado en el citado expediente.

Donostia, a 20 de junio de 2025

Fdo: Ricardo Burutaran Ferré

Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Ricardo Bururatan Ferre jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUERDIKO HAMABIAK ETA HAMABOST MINUTUAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DOCE HORAS Y QUINCE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

| | |
|---|---|
| **Gai zk. /** Asunto nº | 1 |
| **Mota /** Clase | Akta / Acta |
| **Eguna /** Fecha | 2025/07/24 |
| **Saioa /** Sesión | OHIKOA |

**UDALBATZA** / PLENO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Berretsia** Ratificado | | **Aho batez** Unanimidad | X | **Aldeko botoak** Votos a favor | |
| **Onartua** Aprobado | X | **Quorum** | | **Aurkako botoak** Votos en contra | |
| **Jakinean** Enterado | | **Gehiengoa** Mayoría | | **Abstentzioak** | |

**Oharrak**
Observaciones ..........

Nagore Sarasola Otermin

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (24/07/2025 10:16 CEST), Eneko Goia Laso (24/07/2025 11:24 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : F0YM-0TOC-936T-2S7E